

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko apirilaren 11 / 626. zenbakia

Musakolatik Erguineraino iritsi da Gernika Oinezkoen Zumardia



Monterondik Erguinerainoko
oinezkoen pasealekua
inauguratu dute Arrasate
Herri Eskolako laguntzarekin

ORAIN ETA HEMEN: EGITAMU OROKORRA, AURRERA/9 • KIROLA: ESKUZ BANAKAKO PARTIDUA/13

ARGAZKIA: UBANE MADERA

EDERTASUN GIDA/2

Bitxori eta Agustina Sánchez, Bitxori ileapaindegikoak

“Hirugarren adineko bezeroendako salneurri bereziak ditugu”

Bitxorik orain dela hiru hilabete zabaldu zuen bere izena daraman ile apaindegia. Erdiko kalen dago ile apaindegia, 52 zenbakian. Lanean, baina, ez dago bakarrik. Bere ahizpa Agustina ere Bitxori ile apaindegian egiten du lan, eta bien artean talde polita osatzen dute.

Bitxori ile apaindegiak hiru hilabete baino ez dituen arren, Bitxorik urte asko daramatza negozio horretan: “Ile apaindegi hau zabaldu aurretik, zortzi urtez San Andresko ile apaindegi batean izan nintzen lanean. Lana uztea erabaki nuen, beste zeregin batzuk nituen-eta”. Bi urteren bueltan, baina, negozio propioa ireki du Bitxorik: “Bi urte hauetan ez naiz gora begira egon. Hainbat kurtso egin ditut: Bilbon, Bartzelonan, Londresen... Eta kurtso horietan teknika eta orrazkera berriak ikasi ditut”. Azken batean, Bitxorik argi dauka ile apaindegi batean lan egiteko modaren jarraipen zorrotza egin behar dela: “Negozio honetan ezin zaitezke atzean geratu. Etengabe aldatzen den lanbidea da, eta jendeak eskatzen dizuna egiteko gaitasuna izan behar duzu”.

MOTA GUZTIETAKO BEZEROAK

Hiru hilabete hauetan mota guztietako bezeroak izan ditu Bitxorik: “Emakumeak eta gizonezkoak etortzen dira hona, baita gazteak ere. Umetxoren bat ere ekarri didate ilea moztera” dio Bitxorik.

Bitxori ez da aldaketa handien lagun: “Aldaketak poliki-poliki egin behar dira. Ez dut atsegin egun batetik bestera bezero baten orrazkera guztiz aldatzea, gogorra izaten da-eta”. Normalean, baina, jendeak argi izaten du zer gura duen: “Batzuetan aholkulari lanak ere egiten ditugu. Orrazkera bat erabakitzerako orduan, aurpegiak garrantzia handia dauka: aurpegi zabala daukan, estua daukan, azalaren kolorea...”



Bitxori eta Agustina ahizpak dira, eta lantalde polita osatzen dute.

Era askotako orrazkerak egiten dituzte Bitxori ile apaindegian. Kolorea asko erabiltzen dute, kolore leunak, eta metxak ere asko egiten dituzte. Bitxoriren esanetan, udaberria iritsi dela asko igartzen dute: “Jendeak gehiago zaintzen du bere burua. Neguan gutxiago joaten gara ile apaindegira, baina udaberria iritsi bezain pronto,

gehiago zaintzen gara”. Orain arte emakumeak ziren ile apaindegira gehien joaten zirenak, baina gizonezkoak ere gero eta sarriago joaten dira. “Gizonezkoetan, *punk* estiloa bueltatu da, baina askoz ere leunago. Gero eta mutil gehiago etortzen da hona, eta ilea mozteaz gain, orrazkera egiteko erabili ditudan aparrak erosi egiten

dituzte”. Argi dago, itxura zaintzearena mutilen kontua ere badela.

NAGUSIENDAKO SALNEURRI BEREZIAK

Astelehen eta martitzenetan, Bitxori ile apaindegian, hirugarren adineko bezeroei salneurri bereziak egiten dizkiete. Aprobetxatzeko moduko eskaintza, duda barik!

Edertasun Gida

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

AUSART
Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLEARIN BIOTHERM VALMONT

ILEAPAINDEGIA
ILEA
UNISEX

Ferrerias 14. 943 79 87 62

BITXORI
Ileapaindegia

Erdiko kale 52.
Tel.: 943 79 88 32

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 71 23 91 telefonora

KALEINKESTA/ Uarkape frontoie biher beste ibiltten dogu?



MARTA ZUBIZARRETA
Langillie

Ez. Esango neuke restaurantien, ordenadoriek dauzen lekuen eta boulderrien ibiltten dala jentia. Baiñe frontoien pelota partido gutxi egoten die, eta hori bulzetu egin biherko leukie.



OIHANA PLAZA
Langillie

Ez. Nere ustez, frontoie oso gutxi ibiltten da. Denpora baten hango tabernan ibilli nitzen lanien, eta frontoien ez zan mugimendu haundirik egoten. Sarrixatzetu egin biherko leukie.



MARIA JESUS SALTERAIN
Etxekoandrie

Ez. Pentsetan dot Mondraguen pelota partido gehixago egon biherko litzakela. Afiziñue badauela esango neuke. Herrixek holako frontoi bat biher dau, baiñe sarrixago ibilli biher da.



DENIS ELORTZA
Langillie

Ez. Uarkapen behin baiño gehixagotan egon naz, baiñe ez pelotie ikusten. Uste dot pelota kontuetarako ez dala askorik ibiltten, eta kultura kontuetarako ibilttie be ondo egongo litzake.



IGOR ANTONIO IRIZAR
Langillie


Baietz uste dot. Egixe da kontu horretan ez nauela oso jantzixe, baiña noizien behin partido batzuk organizetan daue. Ez dakit pelotajaialdi gehixago organizetako ze egin biher dan.



DANIEL AZPARREN
Ikaslie

Kanpotarra naz, baiñe esango neuke Mondragueko frontoie asko ibiltten dala. Ez dakit urtien zenbat partidua profesional egoten dien, baiñe bat edo beste ikusi izen dot.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BARANDA BARIKO ZATIAK Ume txikiak dituen irakurle batek jakinarazi digunez, Santa Barbara azpiko parkean, ahateak dauden lekuan, baranda bariko zatia dago. Ahateen putzura ez jaustea ekiditen duen baranda bukatu eta inolako babes bariko zatia dago, parean landararik ere ez daukana. Hala, umeak putzura jausi ez daitezten zati hori babestea eskatzen du irakurle horrek.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6

Agintaldiari begiratua

Laster bukatuko den legegintzaldiari begiratua egin diote alderdi politikoetako buruek.

KULTURA /14

Zumalaberen erakusketa

Gaur, egubakoitza, Ramon Zumalabebilbotarrak margolanen erakusketa ipini du Arregi galerian.

ZAHARRAK /17

Uribarriko mendi ibilaldiak

Uribarriko zaharren elkarteak hilean behin mendi ibilaldi bat antolatzen dihardu.

ASTEKODATUA

2.600

METRO LUZE DA GERNIKA OINEZKOEN ZUMARDIA

Gernika Oinezkoen Zumardia, Musakola kiroldegitik hasi eta Erguin auzoraino egin duten pasealekua, 2.600 metro luze da. Pasealekua Garagartzaraino luzatzeko asmoa dute.

BESTE EKESANA

“Instituzioen eginkizuna da adierazpen askatasuna babestea, eta edozein hedabidek (euskarazkoa zein gaztelaniazkoa, ezkerrekoa zein eskumakoa, askotarikoa zein itxia) pairatu ditzakeen erasoei aurre egitea. ‘Euskaldunon Egunkaria’ aurrera atera dutenei proiektu hori bazterrerara utzi eta, beren onerako, zerbait ezberdina egin dezaten eskatzea, ekintza armatu baten mehatxupearan bizi direnei bizkar-tzainak jarri ordez beren ildo politikoa aldatzeko iradokitzea bezalakoxea da. Eusko Jaurlaritzak da euskara babes lezakeen instituzio politiko indartsuena, eta bere egitekoak dira euskarazko egunkaria posible izango dela bermatzea, euskarari egin ahal dizkioten erasoetatik babestea...”

EDORTA ARANA
‘EGUNERO’/03-04-03

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Gerra

Lehenik eta behin esan nahi dut ez dudala hau idatzi nahi. Ez nuke nahi gerraren gainean ezer idatzi beharrik edukitzea, bi arrazoiengatik: lehena, gerra ez zaidalako gustatzen. Eta bigarrena, ez dudalako gerra ulertzen. Ez dut ulertzen nola bidali daitekeen herrialde oso bat, mundu oso bat elkar deuseztatzea, gerra egin behar dutenek elkarren aurka ezer ez dutenean.

Gauza asko entzuten ari gara gerra honi buruz, legez kanpokoa dela, injustua dela, ... baina okerrena honako hau da: oso mingarria dela. Beti bezala, gerrak ez du ezer onik ekartzen (bai egia da batzuk gerrak irabazten dituztela, baina bidean asko galtzen dute). Erraz sortzen dira gorrotoak, minak eta ezin ikusiak. Hori konpontzeko urteak behar dira, agian belaunaldiak. Hori konpontzen bada.

Bosniako gerran soldadu ibilitako lagun kroaziar batek

esan zidan ez zuela ulertzen zergatik gorroto zituen serbiarrik; lehenago elkarrekin hain ondo bizi baziren ere, hauek gorrotatzera heldu zen. Onartzen zuen ordea, bizitza oso bat zuela gorrotoa kentzeko, baina ez zekien lortuko zuen ala ez.

Laster esango digute berreraikitze prozesuan diru asko, eta material asko eta oso aurreratuak erabiliko dituztela (inori kalte egin behar ez zioten armak bezain aurreratuak). Egia izango da agian deuseztatutako hiri, herrixka eta auzoak

berriz eraikiko dituztela. Baina gelditzen den gorrotoa, berriz, ez dute desegino. Ez dakit ere, hori konpontzeko mediorik jarriko duten ala ez. Ez dut uste horren gainean segundo bat bera ere pentsatu duten... Eta agian gelditzen den aztarnarik handiena izango da. Nire lagunak bezala bizitza oso bat dute gorrotoa gainditzeko. Baina haurren bizia luzea da. Nola gainditu gorroto hori guztiori?

“Agian deuseztatutako berriz eraikiko dute, baina gelditzen den gorrotoa ez dute desegino”

Arrasate
PRESS

Otalaria Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 11**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 12**
Azkoaga, Iturriotz 943 79 79 99
- DOMEKA, 13**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 14**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 15**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 16**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUENA, 17**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Iguatorialdea 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako ebrea 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan egun osoa

- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZTA**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 10:00 (elebiduna) 11:00 (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz) 13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz) 19:00 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka San Isidron (euskaraz) 12:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna) Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz) Domeka 12:00 (gaztelaniaz)

OHARRAK

ALTAMIRAKO JAIK

Bihar, zapatua, Altamirako jaiak ospatuko dituzte. 10:30ean, gaiteroek kalejira egingo dute. 11:30ean, umeen jokoak egingo dituzte, eta 13:00etan, taberna zabalduko dute. 16:00etan, umeendako marrazki lehiaketa egingo dute, eta 18:00etan, txokolate-jana egingo dute. 18:30ean, auzoko erretiratuei omenaldia egingo diete eta Lore Gazteak taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du. 19:00etan, meza egingo dute San Juan Bautista elizan. 19:15ean, buruhandiak irtengo dira eta gauean dantzaldia izango da, Txinparta taldearekin.

GERRAREN AURKA

Gaur, egubakoitza, gerraren aurkako kale bilkura deitu dute Herriko Plazan, 19:00etan. Egubakoitzero egingo dute.

SORALUZETARREN AFARIA

Gaur, egubakoitza, Arrasaten bizi diren eta lan egiten duten soraluzetarrek afaria egingo dute. 21:00etan, Alkartu elkartearen afaria egingo dute.

MAGIA IAMAIN

Gaur, egubakoitza, Jon Zabalek magia ikuskizuna eskainiko du gauerdian, Iamai kafetegian.

AEDrenAGENDA

'EGUNKARIA'-REN ALDE

Egunkaria Aurrera herri batzordean parte hartu gura baduzu, jo AEDra (Pablo Uranga kalea) edo batzordeko taldeen bileretara. Harpidetza, diru-bilketa eta propaganda taldeak martitzenero elkartzen dira AEDn, 20:00ak aldera. Taldeen bileretara jo, eta zeuk ere lagundu ahal izango duzu.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Euskararen hitzarmena luzatu egin zuten

Euskararen hitzarmenak hiru urte bete ondoren, Jaurlaritzari dirulaguntza berria eskatu zioten eta sinatzaileei beste hiru urtetarako sinatzea proposatu zieten. Hitzarmena sinatzaileen ahozko harremanetan eta erakundeen barne-funtzionamenduan ere oinarritu zuten.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Kirrimarria"

Istilua, eztabaida, zaratatsua batik bat.
—Gaur gabian andra gizonok kirrimarran bat ibillirik izan bia dabe.



ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Jorge Oteiza ezagutu zutenekin berbetan

Jorge Oteizaren inguruan berba egin dugu hainbat lagunekin, eta solasaldi horiek zapatu eta domekan errepikatuko ditugu. Josemari Velez de Mendizabal, Pello Zabala eta Arantza Ozaetak ezagutu zuten eskulturagilea, eta harekin izandako bizipenak kontatu dizkigute. Luxio Ugarte, MUko irakaslearekin ere izan gara, Oteizaren obraren inguruko doktoretza egin baitzuen. Horretaz gain, Juanjo San Miguel kazetariarekin izandako solasaldia ere eskainiko dugu.



Bidaian goazela, kontuan hartzekoak

Jende asko joango da bidaian Aste Santuan, eta bidaian goazenean komeni da ohar batzuk kontuan hartzea. Horregatik, Emun kooperatibako Ainhoa Larrañaga abokatuak gomendio batzuk emango dizkigu datorren eguaztenean 11:00etatik aurrera. Esaterako, hegazkina hartuz gero eta maletak galtzen bazaizkigu, zer egin azalduko digu abokatuak. Bestetik, eguaztenean ere, Eusebio Iñarrak iraganeko Aste Santua kontatuko digu.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 5	-1°C
MAXIMOA Martitzena, 8	19°C
ASTEKO EURIA (l/m²)	20,5 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 2	11°C 10°C 20,2 l/m²
Eguena, 3	10°C 6°C 0,3 l/m²
Egubakoitza, 4	11°C 8°C — l/m²
Zapatua, 5	11°C -1°C — l/m²
Domeka, 6	17°C 6°C — l/m²
Astelehena, 7	14°C 7°C — l/m²
Martitzena, 8	19°C 0°C — l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Egurdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorian agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**
20:00 **MIR**: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras.
- MARTITZENA**
20:00 **Txortxorrien**: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**
19:00 **Planing Prest**: Deiane Arrieta
- ZAPATUA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**: Juanjo San Miguel, Josemari Velez de Mendizabal, Pello Zabala, Arantza Ozaeta...
- DOMEKA**
11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Greba metalgintzan

ELA, LAB, ESK eta CCOO sindikatuek Debarroko metalgintzan deitutako grebak erantzun zabala izan du, sindikatuen esanetan. Lanuztearekin ADEGIren jarrera salatu gura izan dute sindikatuek. Lan hitzarmenaren negoziatioetan ADEGIk erakutsitako jarrera ez dela zuzena izan esan dute ELAko eta LABeko ordezkariak.

Horrekin batera, azken egunotan egin diren grebak direla-eta ibarreko hainbat enpresatan izan diren piketeetan istiluak gertatu dira.

Rocka, 'Egunkaria'-ren alde


Joan den zapatuan *Egunkaria*-ren aldeko rock kontzertua egin zuten Uarkapen. Guztira hamalau taldek hartu zuten parte adierazpen askatasuna aldarrikatzeko.

Jaialdia arratsaldeko seietan hasi zen, eta hamalau taldek jo zuten kontzertuan. Sarrera bost euro kostatu zen, eta batutako dirua *Egunkaria*-ren alde diharduten taldeei bidaliko diete. Kontzertua antolatzeke Arrasateko Udalaren laguntza eta makina bat tabernariren babesia izan zuten. Jendearen erantzuna ere oso ona izan zen.

MUK fakultate berria Irunen

Mondragon Unibertsitateak campus berria inauguratu du Irunen. MUKo fakultate berrian Enpresa ikasketak egin ahal izango dira. Hainbat diplomatura eta lizentziatura eskainiko ditu MUK Irunen: Enpresa eta Garraio Logistika eta Nazioarteko Komertzioa diplomaturak eta Enpresa Zuzendaritza lizentziatura, besteak beste.

Horrez gainera, graduatu osteko ikasketak ere izango dituzte Irungo fakultatean. Fakultate berriarekin, Mondragon Unibertsitatea dagoeneko Arabara, Goierrira, Markinara eta Bidasoa aldera hedatu da.



Herri anitza legeztatzeko kanpaina, abian

Joan den zapatuan hasi zen Herri anitza plataforma legeztatzeko kanpaina, eta zapatuan bertan ehun bat lagun joan ziren udaletxeko idazkaritzara sinadura ematera. Dagoeneko 500 sinadura lortu dituzte, baina oraindik sinadura gehiago batu gura dituzte: apirilaren 16ra arte sinatu ahal izango da.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Zein izango da hurrengoa?

Testu hau idazterako unean, komunikabide askok Irakeko gerra bukatutzat eman dute. Mundu osoan AEBen eta Britaina Handiaren gehiegikeriak salatzeke altxatu diren ahotsak gero eta gehiago dira. *Kalte kolateralak* eta bestelakoak -aurrekoak bezain larriak- dagoeneko zenbatezinak dira. Horren guztiaren aurrean,

irakiarrek egin duten erresistentzia estaltzeko asmoz, Bagdad hartua dutela *erakutsi* dute, eta horrekin batera, inbasioak *askatu* dituen irakiarrek ospakizunetan erakutsi dizkigute.

Auskalo zelan dagoen Irak. Azkenengo bi asteotan irudikatu ahal izan dugu behin baino gehiagotan AEBak gezurretan ibili direla. Agian Bagdad hartu

dutela egia izango da, baina horrek ez du esan gura Irak guztia mendean hartu dutenik. Horra hor, esaterako, Afganistan: hango konturik ezagutzera ematen ez duten arren, han oraindik ez dago inolako *bakerik*.

Orain Irakeko etekinak zelan banatu pentsatzen dabilta. Bitartean, beste behin, Nazio Batuen Erakundearen papera penagarria da oso. Zein izango da inork zigortu barik inbadituko duten hurrengo lurraldea?

ASTEKOIRUDIA



MAIDER OSA

ARRASATEKO PILOTALEKUA LEPO EGON DADIN AITZAKIA POLITA BIHAR ARRATSALDEAN

Herrian sekulako pilotalekua daukagu, baina pilotalekuaren erabileraren gainean eztabaida dago. Arrasatek, herri moduan, holako pilotaleku baten beharra du, baina behar baino gutxiago erabiltzen da. Herritarrek nahikotxo erabiltzen dute: herriko pilotariak, gimnasia erritmikokoak, partikula-

rrek... Baina harmailak hutsik egoten dira askotan. Herritarrek pilota partiduak sumatzen dituzte faltan, eta bihar, behar hori asetzeko, punta-puntako pilota jaialdia izango da Uarkapen. Salueurria, gainera, bestetan baino merkeago jarri dute: 20 euro. Orain, herritarrei dagokie erantzuna ematea. /X.U.



Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



AGINTALDIARI BEGIRATUA

XABIER ZUBIZARRETA/ALKATEA

“Egitamuari traba piloa ipini diote, baina ez dute benetako alternatibarik aurkeztu”

ARRASATE PRESS

Zein etorriko den. Hurrengo alkate zein izango den. Horixe da Arrasaten galdera nagusia. Xabier Zubizarreta berak ere ez dakiela diosku. Bien bitartean, orain artekoari begiratua emango dugu, bukatzeaz dagoen legegintzaldiari, alegia.

Nekatuta iritsi zara legegintzaldiaren amaierara?

Ezin ukatu neke naturala badaukadala. Gainera, ez da legegintzaldi bat, bosgarren legegintzaldia da. Horrez gain, Udalean izan dudana esperientzia benetan oso-oso aberatsa izan da. Zentzu horretan, erabat gogo beteta sentitzen naiz eta oso gustura egin ahal izan dudana guztia egiteagatik eta jaso dudana jasotzeagatik.

Legegintzaldiko ekimenik garrantzitsuena Egitamu Orokorra dela esango zenuke?


Egitamuak herri osoari aspektu oso garrantzitsuan eragiten dio. Arrasaten zeuden arauak (arau subsidiarioak) 1985ekoak dira. Hortaz, arauok erabat garatuta eta amaierara iritsita zeuden. Ezinbestekoa zen berritzea; eta erabaki genuen beste arau batzuk egin ordez, Egitamu Orokorra egitea. Bereziki, handik aurrerako gestiorako Egitamu Orokorra askoz ere tresna hobek eskaintzen dituelako hiri-garapenerako.

Garrantzitsua den? Herri osoarengan eragin handia daukalako, etorkizunerako aurreikuspenak egiten dituelako... Zentzu horretan bai. Gertatzen dena da gauzen garrantzia afektatu bakoitzaren araberako dela, eta batzuentzat etxez etxeko laguntza askoz ere garrantzitsuagoa izango da, edo diru laguntzaren bat... Beraz, ikuspegi orokor batetik, bai, garrantzia handia dauka. Eta, prozesu oso luzea izan arren, edo, akaso, izan delako, azkenean tresna egokia antolatu dugula uste dut, eta etorkizunean Arrasatek tresna hori erabili ahal izango duela. Zentzu horretan, inportantea da, eta ona izango da.

Baina, bestela, hartzaile bakoitzaren araberako izaten da gauzen garrantzia.

Baina, kontrako oposizio gogorra izan duzue...

Zoritxarrez, esan behar dut oposizio oso gutxi egon dela, bereziki, Udal barruan. Oposizio alderdi biren aldetik traba piloa ipini dituzte, baina, oposizio moduan, benetako alternatiba planteatu barik. Euren helburua Egitamua ez ateratzea izan da, helburua eurei gustatzen zaien Egitamu Orokorra ateratzea izan



ARRASATE PRESS

“Egitamua dela-eta, interesgarriena izan dena da jendearen aldetik egon den esku hartzea”

behar zenean.

Interesgarriena izan dena da jendearen aldetik egon den esku hartzea. Oso handia izan da. Zaila izango da horrelako beste esperientziaren bat aurkitzea, horrenbesteko parte hartzearekin. Eta, esku hartze horretan denetarik egon da; zailantzarik ez dago horrenbesteren artean denen gustuko erantzunak ematea ezinezkoa dela. Baina, herritarrek egin dituzten ekarpenetatik asko onartu ditugu; beste batzuk ez, iruditu zaigulako ez direla onargarriak; eta uste dut Egitamu Orokorra egiten dituen proposamen batzuk afektatu batzuen aldetik ez direla ondo ulertuak izan. Baina, espero

“Batzutan Udaletik ezin da lagundu. Halako arantza txiki bakanak geratu zaizkit”

dut etorkizunean ikusiko dutela Egitamuak egiten dituen proposamenak euren arazo askoz onura gehiago dakartzatela gaur eguneko dituzten zenbait beldur baino.

Duela lau urte, legegintzaldirako aurreikusitako erronka batzuk aipatu zenituen: kirol instalazioak, etxebizitzak, kultur etxea eta ingurumena. Zelan aldatu da egoera?

Aipatutako ordenari eutsiz, kirol instalazioen gaia, zoritxarrez, tratatuta daukagu, ez dugulako lortu Aldunditik dagozkigun diru-laguntzak jasotzea. Alternatiba moduan datorren legealdirako aztertzen gabilza herrian bertan zenbait antolatzea diru-itu-

“Udaletxean agintari gutxi egon behar da eta zerbitzari eta errekaduetarako langile gehiago”

rriak sortuz instalazioak egiteko. Edozelan ere, behin eta berriz exijitu behar ditugu dagozkigun diru-laguntzak.

Etxebizitzaren arloan Zerrajerako etxeak lorpen handia dira. Eta, datozen urteotan Arrasaten etxe dezente egingo dira; erdia edo gehiago babes ofizialekoak edo interbentzio publikokoak.

Kultur etxeari dagokionez, lanak hasita daude; eta eraikin zaharretan gertatu ohi den moduan, aurreikusitako ez diren zailtasunak sortzea normala izaten da. Hemen ere hala gertatu da; baina, proiektua aurrera doa.

Ingurumenaren gainean, planteatu genuen batzorde bat sortu-

ko genuela, eta hala egin genuen. Horrez gainera, arlo horretan kolektorearen instalazioa egiten gabilta, eta nahiz eta partzialki izan, laster abian ipiniko dugu; eta, Arrasate pasatu arte kolektoreak eramango ditu orain arte errekaratzen botatzen genituen ur-zikin gehienak. Eta, horrek errekararen egoera dezente hobetuko duela uste dut.

Politika kontuetan, ezinbestekoa da Batasunaren legekanporatzea aipatzea...

Legez kanporatze horrek ezker abertzaleko bereziki jotzen gaitu; baina, uste dut neurri handian, PPK eta PSOEek EAEko erakunde guztiak euren eskuetan hartzeko antolatu duten operazioa dela, hortaz, ez doala ezker abertzalearen kontra bakarrik. Nahi dutena da Euskal Herriaren kontrol osoa edukitzea; eta Euskal Herriak dituen askatasunerako eta autodeterminaziorako moduko oinarriko eskubideak ez betetzea. Hori da euren planteamendua, baina, uste dut berriro ere horma baten kontra joko dutela. Ezingo dutela Euskal Herria mendean hartu, nahiz eta, behar bada une batez, instituzio batzuk euren eskuetan hartu ahal izango dituzten. Ikustear dago zer gertatuko den. Baina, operazio hori Euskal Herri osoaren kontra doa. Beraz, uste dut erantzuna ere euskaldun denona izan beharko litzaitekeela.

Geratu zaizu zerbaitekin egon barik?


Gauza piloa. Adibidez, kirol instalazioen azpiegitura... Bestalde, askotan, herritar batzuk udaletxera datoz dauzkaten zenbait arazo konponbidean ipintzeko laguntza eskatzen. Eta, pasatzen da, askotan, Udaletik ere ezinezkoa dela laguntzea. Horrelako arantza txiki bakanak geratu zaizkit. Eta, batzutan min gehiago egiten dute horrelakoek proiektu handiren bat ezin egiteak baino.

Dena dela, garrantzitsuena da herrian proiektuak abian ipintzea, elkarlana lortzea; eta pentsatzen dut Arrasaten horretan dezente egiten dela.

Zer eskatuko zenioke datorren agintariari?

Uste dut udaletxean agintari gutxi egon behar dela eta zerbitzari eta errekaduetarako langile gehiago. Alkate baten egitekorik nagusia da herritarren nahiak zeintzuk diren aurkitzen joatea. Lan zaila da. Baina, alkate baten lana ez da ideia brillanteak ateratzea, baizik eta deskubritu zeintzuk diren jendearen beharrak, jendearekiko sentsibilitatea izatea. Nahiz eta askotan ezezkoa esan beharra egoten den ere, norberaren irizpideen arabera.

Beste udal taldeen iritzia



JOSEBA UGALDE
EB




ANTONIO PALACIOS
PP



JOSE MARI LOITI
EAJ



PACO GARCÍA
PSE-EE



JOSE MARI URIZAR
EA

Bi fase izan ditugu: batetik, su-etenarena. Elkarrizketa bidezko konponbideen aldeko alderdiek lantaldeak osatu zituzten. Gizartearen ilusioa piztu zuten ekimenak egin ziren. Bestea, su-etena apurtu zenekoa. ETA herriro hiltzen hasi zenean, ilusioa galdu eta lantaldeak apurtu ziren. PPK eta PSOEk elkarrizketa bidezko konponbidearen aurka gogor dihardute: Bata-suna legez kanpo utzi dute, *Egunkaria* itxi dute...

Udal gobernuan gehiengoari eutsi eta lana gogor egin dugu: Erguinen eraberritzea, Erabile-ra askotariko eraikina, Gernika zumardia, kultura etxea, Musakolako zaharren etxea, Garibai-ko lur azpiko aparkalekuak, energia berritzaileen aldeko apustua, Zerrajerako 308 etxebizitza...

Arrasaten Batasunak du alkatetza; horrenbestez, balorazioa ezin da positiboa izan. Herriak aurrekontu handia du, eta gauza batzuk ondo egin dira. Garraio publikoa bultzatzea, kolektore lanak...

Beste gauza askotan ez gaudere ados. Egitamu Orokorrean, adibidez, ez da inongo adostasun politikorik egon. Horren harira, datorren agintaldirako gertu ditugu aldaketa batzuk. Orokorrean, alderdi bakoitzak bere kontu egin du lan, eta ez da batere komunikaziorik egon. Hori ez da gure lan eredia. Horrez gain, osoko bilkuretan tentsio handia izan da, eta krispazioa izan da nagusi. Askotan ez dugu ulertu EA eta EAJ alderdiek batzeko edo banatzeko duten erraztasuna.

Esan behar dut herrian egin diren lanek atzerapen handiak izan dituztela, eta lan askok, gainera, aurrekontu askoz ere handiagoa behar izan dutela. Adibide moduan gaztetxea aipa dezakegu: lanak oraindik ez dira bukatu eta gaztetxearen kostuak %20 egin du gora. Horrekin batera, erabaki asko hartzerako orduan informazio falta egon da: babes ofizialeko etxebizitzaren kontuan, Legarre eta Gelmako pabilioien jabeekin izan diren negoziazioetan...

Egitamu Orokorrean, berriz, kaltetuekin elkarrizketa falta izan da: Etxe Txikiak, Zaldibarko eta beste hainbat auzotako bizilagunekin, baita beste hainbat enpresatako jabeekin ere. Herritarrek kezu dira; izan ere, Udala oso erakunde itxia bilakatu da.

Lan-sistemari dagokionez, udal gobernuaren metodo-lak nagusikeriakoak eta demokraziaren aurkakoak izan dira. Parte-hartzea ukatu dute eta oposizioari ez diote informaziorik eman. Hitzarmenak udaltzetik kanpo egin dituzte, okultismoarekin, eta ez dugu esku-hartzerik izan.

Udal gobernuaren helburuak ez dituzte zehaztu. Lan urria egin dute eta oso helburu gutxi bete dituzte. Egitamu Orokorra herritarren aurka egin dute: langileen, enpresaburuen eta alderdi politikoen aurka. HBren eta EAren interesak nagusitu dira. EBk meza-mutilaren papera bete du. Erabili dute, eta gero bizkarrara eman diote. Etxebizitzaren arazoaren alde ez dute ezer egin: Zerrajerako lanak gelditu daude.

Guk oso balorazio positiboa egiten dugu, azken lau urteotan gauza asko egin dira-eta. Egitamu Orokorra orain dela 10 urte hasi zen, eta agintaldi honetan bukatu dugu.

Hirigintza mailan, azken lau urteotan lan garrantzitsuak egin dira: besteak beste, Zerrajerako babes ofizialeko etxeak. Horrekin batera, auzo-bide eta baserri-bide asko egin dira gure auzoetan. Bestalde, orain dela 20 urteko eskaera bati erantzuna eman dugu: garraio publikoari, hain zuzen ere. Beste lan asko ere egin dira: Gernika zumardia egin da, herrian hiru komun publiko jarri ditugu, aparkalekuak egin dira: Otalaran, Santa Marinaran, eta Biteriko aparkalekuen proiektua ere aurrera doa... Eta ezin ditugu ahaztu kolektoreko lanak.

“Udal gobernuan gehiengoari eutsi eta lana gogor egin dugu; ekimen asko bultzatu ditugu”

“Egitamu Orokorrean ez da adostasunik egon, eta osoko bilkuretan krispazioa izan da”

“Kontu askotan informazio falta egon da, eta Udala erakunde itxia bilakatu da”

“Udal gobernuak parte-hartzea ukatu du eta oposizioari ez dio informaziorik eman”

“Guk oso balorazio positiboa egiten dugu, azken lau urteotan gauza asko egin dira-eta”

ANALISIA

Politika irizpideen eragin nabarmena

Argi dago Arrasateko Udalean politikak, edo, hobeto esanda, irizpide politikoen pisu handia dutela. Hau da, oso nabarmena da bi taldetan banatuta daudela alderdi politikoen: Gobernu batzordekideak batetik (EA, EB eta ASA), eta gainerako udal taldeak bestetik (EAJ, PP eta PSE-EE). Eta, horrek zuzeneko eragina dauka herrigintzan, eta Udalak hartzen dituen erabakietan. Izan ere, oso-oso gai gutxitan izan dute alderdi guztiek erabateko adostasuna; eta, aldiz, Udalak hartu dituen erabaki gehienak aipatutako bi taldeen arteko kontrako iritziekin erabaki dituzte. Egitamu Orokorra da horren adibiderik garbiena. Arrasaterendako izugarritzko garrantzia dauka

plan horrek eta alderdi politikoen ez dute inolako adostasunik lortu. Irizpide desberdinak eduki dituzte, eta ez dira bat etorri. Eta, garrantzitsua izango litzateke adostasuna lortzea, kontuan hartuta herri oso-osoan eragina izango duela Egitamuak.

Baina, alderdi politikoen arteko egoera nekez hori ez da hasieratik horrelakoa izan. Legegintzaldiaren hasieran (seguruenik EAren su-etenak eraginda), aipatutako bi talde kontrarioen arteko harremana ez zen horren eskasa. Bataren zein bestearen posturak gogortzen joan dira egoera gogortzen joan den neurrian; osoko bilkuretan egon diren istiluek erakusten dute hori. Eta, aurrera begira, berriz, zalantza eta

ezjakintasuna dira burura etortzen direnak. Zer gertatuko da Arrasaten?

Edozelan ere, ondo edo txarto, baina, lan ugari egin dituzte herrian. Behin eta berriro aipatzen dugun Egitamua, adibidez. Herriko ur-zikinak batu eta kanpora ateratzeko kolektorea abiarazi dute. Horren beharrezko diren babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen dabilta. Garraio publikoa bultzatzearekin zerbitzu garrantzitsua abiarazi dute. Gernika Zumardia, kultur etxea, aparkalekuak, Alde Zaharra oinezkoendako egokitu dute...Eta, auzoekin ahaztu barik, auzoak berritzeko proiektuak ere abiarazi dituzte.

Gauza asko geratu dira egin barik. Horrela izaten da beti. Eta, jakina,

Arrasaten beti egongo da zer egin. Handitzen doan herri-hiria da-eta. Ekonomia eta hezkuntza aldetik ezinbesteko garrantzia dauka; eta Arrasateren baitan, gizarte mailan sortzen diren mugimenduen garrantzia ere kontuan hartu beharrekoa da.

Orain, datorrenak hori guztia bideratzen jakin beharko du. Horrekin batera, gabezia handia litzateke herritarren zati batek ordezkartzarrik lortzen ez badu. Batez ere, hauteskundeak ezarri zirenetik, legegintzaldi gehiengotik Arrasate ezkertiar abertzalea izan delako. Era berean, ezin ahaztu zenbait zinegotzik bizi duten egoera eta bizimoduak ez dela batere jasangarria, eta horrek ere oso eragin handia duela.

GERNIKA OINEZKOEN ZUMARDIA/ Inaugurazio ekitaldia

Erguineraino iritsi da Gernika Zumardia; bidean, komun publikoak egin dituzte

UBANE MADERA

Inauguratu dute Monterron parkea eta Erguin auzoa lotu dituen Gernika Oinezkoen Zumardiko zatia. Ekitaldian, Udaleko ordezkariak eta Arrasate Herri Eskolako ume multzoa izan ziren. Horrez gain, komun publikoa ere inauguratu dute, Monterronen.

Martitzenean inauguratu zuten Monterrondik Erguinerainoko zatia. 577 metro luze da eta lau metro zabal. Zorua asfalto gorritz egindakoa da, jarlekuak ipini dituzte bidean eta haritzak eta pagoak landatu dituzte alboetan. 2001. urtean hasi ziren lanok egiten; aurrekontua, berriz, 1.117.133,22 eurokoa izan da.

Horrez gainera, nabarmentzekoa da zati horretan eraiki duten zubia. Hirigintza Saileko ordezkariaren esanetan, ingeniariak ikuspuntutik miresgarria da: ez dago eutsita (normalean moduan) lurre-rainoko zutabeekin, zubiaren albo bietan ipinitako euskarriekin baizik. Hala, ingurumenaren gaineko eragina askoz txikiagoa da. Zubia 60 metro luze da; Arrasaten bakarra, eta Gipuzkoan bakarretarikoa.

Ino Galparsoro alkateordeak adierazitakoaren arabera, gainera, etorkizunean, Erguindik aurrera egingo du pasealekuak. Aurreproiektuaren arabera, Garagartzaraino iristea da helburua. Eta, seguru aski hala egingo da.

Lehen aipatutako moduan, Udaleko ordezkariekin batera, Arrasate Herri Eskolako bosgarren mailako neska-mutikoak ere izan ziren inaugurazioan. Baita LKSk (pasealekuaren proiektugileak) eta Galdiano enpresako (eraikitzaileak) ordezkariak ere.

Etorkizunean aurrera egingo du oinezkoen bideak; Garagartzaraino iristea da helburua

Monterron jauregiaren ondoko garaje zaharretako baten eraiki dituzte komun berriak


KOMUN BERRIAK

Eta, Monterron parkeak eta oinezkoen zumardiak geroago eta jende gehiago erakartzen duela-eta, komun publikoak zabaldu dituzte Monterronen. Hain justu, jauregiaren ondoko garaje zaharretako bat egokitu du Udalak komunak eraikitzeko.

Udaleko Zerbitzuburu Jose Mari Urizar Ametzuk adierazitakoaren arabera, aspaldi zuten komun horiek egiteko asmoa. Haren esanetan, leku hori puntu estrategikoa da, jende asko ibiltzen delako. Gaineratu digu, hasieran, Seberrekoak moduko komunak ipini gura zituztela, baina, Monterronen leku egokirik ez, eta garaje zaharra aprobetxatzea erabaki zutela.

Esandako moduan, martitzenean zabaldu zituzten komunak. Eta harrezkero, gau eta egun dauzabalik.

Frixi enpresak egin ditu lanok, 30.000 euro pasatxoren truke.



Arrasate Herri Eskolako umeak pasealekuaren zubian; behean, Monterrogo komun berriak; bata zailtasunak dituztenendako da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

HAUTESKUNDEEN USAINEAN/ EAJ-EA koalizioa

Ignacio Lakuntza Anton izango da EAJ-EA koalizioko zerrenda-burua

UBANE MADERA

Maiatzeko hauteskunderi begira, alderdi politikoak etengabeko jardunean dira. Batez ere, alderdiaren baitan berritasunak egin behar badituzte. Egunotan zerrendak aurkezten ibiliko dira. Hala egin du oraingo astean, adibidez, EAJ-EA koalizioak.

Ignacio Lakuntza Anton aurkeztu du EAJ-EA koalizioak taldeko zerrenda-buru izateko. Hortaz, Jose Mari Loitiren lekua hartu du MONEko zuzendariak.

Astelehenean egin zuten aurkezpen ofiziala, Monterron jauregian. Ignacio Lakuntzari laguntzen GBBko lehendakari Juan Mari Juaristi eta EAKo Gipuzkoako lehendakari Iñaki Galdos izan ziren.

Ignacio Lakuntzak adierazi zuen Tolosan jaio arren, ia 30 urte daramatzala Arrasaten bizitzen; eta orain arte Arrasatek berari emandakoa herriari itzultzeko aukera aprobetxatzearen onartu duela EAJ-EA koalizioko zerrenda-buru izatea.

Arrasateren ontasunak aipatu eta gero (MCCren eta MUren jaio-terria, EAeko laugarren hiriburu izateko nahia...), adierazi zuen alderdien arteko ika-mikak gainditu eta proiektu berria abiaraztea gura duela EAJ-EA koalizio-



Ezkerretik eskumara, Juan Mari Juaristi, Ignacio Lakuntza eta Iñaki Galdos.

ak. Justizia, berdintasuna eta elibitasuna moduko baloreen alde lan egingo dutela; elkartasunean eta bakean bizi gura duen herriaren

alde eta Udalaren administrazioa herritarren beharretara egokitzea dela euren asmoa. Horrez gainera, datorren astean-edo gainon-

tzeko taldekideak aurkeztuko dituztela jakinarazi zigen. Eta baita ere, botoa korreoz emateko aukera dagoeneko zabalik dagoela.

LABUR

Oñati kalea urbanizatzeko lanak esleitu dituzte

Sukia enpresari esleitu dizkio Arrasateko Udalak Oñati kalea urbanizatzeko lanak. Hala erabaki du oraingo aste-ko Gobernu batzordeak. Hain justu ere, enpresa bera inguru hura guztia (Legargain) urbanizatzen dabilela-eta, esleitu dizkiote Oñati kaleko lanak. Guztira, 26.000 euro pasatzeko aurrekontua dute lanok; baina, Udalak 8.692 euro besterik ez du ordainduko. Gainontzekoa lurzorua-aren jabeek ordainduko dute.

Monterron jendez beteta, Eroskiren hitzaldietan

Ohitura izaten den moduan, jendez bete zen martitzenean eta eguaztenean Monterron jauregia Eroski Fundazioak antolatutako hitzaldiak direla-eta. Osasunarekin lotuta, pare bat gai landu zituzten bi sendagilek: sasoi honetan horren ugariak diren alergien gainekoa, martitzenean; eta, bihotz-hodiek lotutako gaitasunak izanez gero, kasu horietan zer egin azaldu zuten; eguaztenean. Baina, esandako moduan, hitzaldiok entzuten izan zen jendetza da nabar-menena.

HIRIGINTZA/ Egitamu Orokorra

Diputazioak onespina eman dio Arrasateko Egitamuari

Martitzenean jaso zuen behin betiko onespina Arrasateko Egitamu Orokorra. Gogoratu beharra dago onspen hori Gipuzkoako Foru Aldundiak eman behar ziola, eta hala egin du oraingo astean.

Baina, baldintzapeko onspe-


na izan da. Diputazioak Arrasate Irratiari emandako informazioaren arabera, Egitamuko puntu batzuk bertan behera utzi behar-ko ditu Arrasateko Udalak; hain justu ere, Lurraldearen Zatiko Planarekin zerikusia duten puntuak.

Horrez gainera, gairen baten dokumentazio gehigarria eskatuko dio Aldundiak Arrasateko Udalarari.

Edozelan ere, albiste hau idazteko orduan, Udalean oraindik ere jaso barik zuten Diputazioaren idatzia, hortaz, ezin izan dugu jakin zein aldageta eskatu dituen. Behin eskatutako aldageta horiek eginda, berriro ere Diputazioari bidali beharko diote testua, berriro ikusteko.

Kontuak kontu, onartu dute Egitamu Orokorra. Orain, buletinean publikatzea besterik ez da falta. Behin hori eginda, Egitamuan finkatzen diren irizpideekin lanean has daiteke Arrasateko Udala.

Besteak beste, etxebizitza berriak eta kirol instalazioak egitea aurreikusten du Egitamuak. Baita, industriak eta zerbitzuak ezartzeko lurzorua gordetzea ere. Horrez gainera, zenbait azpiegitura egitearen premia ere kontuan hartzen du.



ARTXIBOA

Arrasate antolatutako irizpideak finkatzen ditu Egitamu Orokorra.



Altamirako jaiak

Bihar, zapatua Altamirakoek jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, 10:30ean gaiteroen kalejira izango da; 11:30ean, umeendako jolasak egingo dituzte eta 13:00etan auzotarren taberna zabalduko dute. 16.00etan umeendako marrazki-lehiaketa egongo da; 18:00etan txokolate-jana eta 18:30ean erretiratuen omenaldia. 19:00etan meza izango dute. Eta, gauean dantzaldia.




'EGUNKARI ROCK' JENDETSUA

Gazte mordo animatu zen joan den astean *Egunkarirock* jaialdira joateko, eta Uarkape pilotalekuan aparteko giroa izan zen. Antolatzaileak gustura azaldu ziren herriko gazteek emandako erantzunarekin, eta baita herriko musika taldeek izan zuten jarrerarekin ere. Guztira, 800 sarrera saldu zituzten.

GERRARI STOP!

Azken hilabeteak gogorrak izan dira, batez ere irakiarrendako. AEBko eta Britainia Handiko armadak dagoeneko Irakeko hiriburuan daude, eta batek daki zenbat denbora beharko duten hiriburu kontrolpean izateko. Irakiarrak, bitartean, ez aurrera eta ez atzera. Legez kanpo egin den gerra horren kontra Arrasateko herritarrek hainbat ekimen egin dituzte. Horrela, herriko komertzio askotako ateetan, gerraren kontrako iragarkiak jarri dituzte. Badirudi handiena pasatu dela, baina batek daki Bagdadeko kaleetan oraindik zelakoak egingo dituzten. Batetik, Sadamen gizonak; bestetik, Bushen gizonak, eta erdi-erdian herritarrak.




DEBAGOIENEKO HAURRAK KANTUAN

Arizmendi ikastolak antolatuta, Debagoieneko Haur-Abesbatzen Topaketa egin zen zapatuan. Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Oñatiko neska-mutikoei abestu zuten. Urtero moduan, aurtengoa ere topaketa airakastatsua izan da. Guztira ia 360 neska-mutiko izan ziren Amaia Udal Antzokian. Saioa amaitzeko, Bergararik etorritako Gazte Orkestra eta Gabero taldea izan ziren oholza gainean.



TXIKIENAK ERE KORRIKA!

Egonezinean eta erabat urduri. Hala egon ziren Arrasateko gaztetxoek Korrika Txikia heltzeko zain zeudela. Halako baten... Han Tronkomobila! Musika, zarata eta... Badator Korrika! Bufo! Lekukoa hartu, pankartaren aurrean ipini eta herriari bueltaxoa eman zieten Arrasate Herri Eskolako zein Arizmendi Ikastolako ikasleek. Guztiak batera, Korrika! Guztiak batera euskararen alde!



ESKUBALOIA

AGR Arrasatek gol bateko aldearekin galdu zuen Loiolaren kontra (30-29)

Arrasatearrek gero eta zailago dute Kopa Txapelketan aurrera egitea: hiru partidutatik bakarria irabazi dute

XABIER URZELAI

AGR Arrasatek Loiolaren kontra jokatu zuen Kopa Txapelketako hirugarren jardunaldia, eta mondragoetarrek gol bateko aldeagatik galdu zuten. Partidu parekatua izan zen: *Pitxi* Herreroren esanetan, Arrasatek gaizki jokatu zuen, baina partiduko benetako protagonista epailea izan zen.

Arrasateko Eskubaloi Taldeak gaizki hasi du Kopa Txapelketa. Hiru partidu jokatu dituzte, eta bakarria irabazi dute. Joan den zapatuan, mondragoetarrek Loiolaren kantxan jokatu zuten, eta baita gaizki jokatu ere.

Arrasateko entrenatzailearen esanetan, taldea negargarri ibili zen. Horrez gain, epailearen lana aipatzeko modukoa izan zen, bigarren zatiko azken minutuetan Arrasateko talde erdi kanporatu zuen-eta.

Norgehiagoka parekatua izan zen. Lehenengo zatian arrasatearrek irabazi zuten, baina

oso alde txikiarekin. Lehenengo zatian berdinduta erretiratu ziren bi taldeak aldageletara (15-15).

EPAILEA PROTAGONISTA

Bigarren zatian, epaileak adierazten zituen falten ondorioz, Arrasatek jokalaria bat gutxiagorekin jokatu zuen bigarren zati ia osoa. Norgehiagoka amaitzeko 14 segundo falta zirenean bi taldeek parekatuta jarraitzen zuten (29-29). Baloi jabetza, baina, Arrasaterena zen, eta *Pitxi* Herrerok etnaldia eskatu zuen. Egin beharreko jokaldia adostu, eta jokaldia egiteko orduan, epaileak erasoan egindako falta adierazi zuen.

Erabaki eztabaidagarria zela-eta, mondragoetarrek protesta egin zuten, eta epaileak Arrasateko hiru jokalaria kanporatu egin zituen. Norgehiagoka amaitzeko 9 segundo geratzen ziren, eta AGR Arrasatek hiru jokalarirekin defendatu behar zuen. Loiolak bikain aprobetxatu zuen epaileak emandako oparia, eta azken segunduan garaipenaren gola egin zuten (30-29).



MIKEL ARANBURU

Arrasateko gazte mailako mutilek eta Elorriko senior mailako neskek jokaturako partiduan arrasatearrek nagusitu ziren (23-42).

Kenci Arrasatek 87-77 galdu zuen Fineco La Salle taldearen kontra

X.U.

Joan den astean, Kenci Arrasatek hamar puntuko aldeagatik galdu zuen Deustuan. Iker Zubiriak, Kenci Arrasateko entrenatzaileak, sei jokalaria baino ez zituen eskura izan, eta egoera horretan norgehiagoka irabaztea zaila da, oso zaila. Arrasateko taldeak, baina, ez zuten itxura txarrik eman.



JULEN IRIONDO

Joan den egubakoitzean gazte asko izan ziren TAU Baskoniaren entrenamenduan.

rako arrasatearrek ziren bi puntuko alde zeukatenak (39-41).

Hirugarren laurdenean lehenengo minutuak ere onak izan ziren, baina, 5. minututik aurrera, deustuarrek estutu egin zuten, eta 22 puntu bata bestearen segidan eskuratu zituzten, huts egin barik. Arrasateko jokalariek ezin izan zuten erritmo hori jarraitu, eta bizkaitarrek markagailuko

aldea nabarmen handitu zuten (68-59). Laugarren laurdenean mondragoetarrek ezin izan zuten gauza handirik egin, eta Fineco La Salle 10 puntuko aldearekin nagusitu zen (87-77).

Oraingo asteburuan, Kenci Arrasatek ez du partidu makala izango, liderra, Azpeitiko Jostaldi izango da-eta Iturripen. Ia jokalaria batzuk errekupeperatzen diren.

ERRUGBIA

Arrasatek sekulako jipoia jaso zuen, liderraren, Getxoren kontra (70-0)

Arrasateko Errugbi Taldeak Getxoren kontra jokatu zuen joan den astean, eta bizkaitarrek sekulako jipoia eman zieten arrasatearrei. Arrasateko taldea hamabost jokalarirekin joan zen partidua jokatzera, ordezkoko jokalaria barik, eta hori gutxi balitz Jon Balzategi eta David Jauregik min hartuta jokatu zituzten minutu asko. Egoera horretan liderraren kontra indarrak neurtzea ez da bat ere erraza izaten, eta joan den zapatuan argi geratu zen hori. Arrasatek ezer gutxi egin ahal izan zuen: getxotarrek entseguak bata bestearen segidan nola egiten zituzten ikusi.

JOKATZEKOAK

ESKUBALOIA

AGR Arrasate - Usurbil (Kopa)
Lehen. seniorrak. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Aloña Mendi - Arrasate
Gazteak. Zapatuan. 17:30. Zubikoan.

FUTBOLA

Elgoibar - Mondra
Erregionala. Zapatuan. 18:45. Mintxetan.

Mondra - Aloña Mendi
Ohor. gazteak. Zapatuan. 17:00. Atxabalpen.

Arrasate - Ondarroako Aurrera
Kadeteak. Domekan. 11:30. Atxabalpen.

Arrasate B - Eibartarrak
Kadeteak. Kopa. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.

Mondra - Urki
Neskak. Kopa. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

ERRUGBIA

Arrasate - Gaztedi
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Garagartzan.

SASKIBALOIA

Kenci Arrasate - Jostaldi Kirolak
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

Kenci Arrasate - Zarautz B
Junior. mut. Zapatuan. 16:00. Iturripen.

Kenci Arrasate - Zarautz B
Kadeteak. mut. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

Kenci Arrasate - Ind. Niessen
Kadeteak. nesk. Zapatuan. 16:00. Musakolan.

PILOTA

Koka - Rai (Eskuz Banakako Txapelketa)
Zapatuan. 17:00. Uarkapen.

EMAITZAK

FUTBOLA

Infantilak: Arrasate - Kostkas. 2-2
Ohor. Gazteak: Mondra - Burumendi. 1-1
Neskak: Amaikak Bat - Mondra. 2-1

ESKUBALOIA

Gazteak: Arrasate - Tolosa. 29-21
2. Gazteak: Gatz Museoa - Usurbil. 31-19

HASIERA ONA

Kenci Arrasateren lehenengo minutuak onak izan ziren. Lehenengo bi laurdenetan, Iker Zubiriaren mutilek ez zuten partiduari eusteko arazorik izan. Lehenengo laurdena amaitu zenean, bizkaitarrek ziren aurretik (24-22), baina aldea oso txikia zen, eta bigarren laurdenean amaitu zene-

FUTBOLA

Mondra erregional mailako liderra da, Urolarekin berdinduta

Zumaiakok kale egin zuen Seguraren kontra, eta lider izatetik hirugarren postura jaitsi da

XABIER URZELAI

Mondra erregional mailako lehenengo postuan dago. Joan den zapatuan, arrasatearrek 3-0 irabazi zioten Intxurreri. Zumaiakok 0-0 egin zuen Seguraren kontra eta Urolak 3-0 irabazi zion Soroluzeri. Mondra eta Urola 58 punturekin daude, eta momentuz, Zumaiako atzean geratu da.

Liga Txapelketa hasieran Mondra erregional mailako lehenengo postuan egon zen, baina Zumaiakok berehala hartu zuen aurrea. Jardunaldi askotan gainontzeko taldeek Zumaiakori begira egin dute lan. Denboraldia, baina, luzea da, eta Zumaiakok azkenaldian behera egin du. Mondrak ondo baino hobeto aprobetxatu du hori, baina Urola ere ez da gutxiago izan, eta orain bi talde horiek daude sailkapeneko lehenengo postuetan.

PARTIDU TXARRA

Joan den astean Mondrak Intxurreren kontra jokatu zuen, eta Arrasateko jokalariek 3 gol egin eta 3 puntu eskuratu zituzten. Emaizta ona izan arren, partidua ez zen bat ere ikusgarria izan. Egia da Intxurre ez zela partidua irabaztera etorri, defendatu baino ez zuela egin, eta horrelako aurkari baten kontra ondo jokatzeko dela erraza izaten. Mondrak golak erraz egin arren, badirudi ondo jokatzeko estutu egin behar zaiola. Atxabalpen elkartu ziren ikusleendako partiduko 90 minutuak luze egin ziren.

Norgehiagokako lehen gola Jon Muruak egin zuen, penaltiz, 35. minutuan. Gainontzeko bi golak bigarren zatian etorri ziren: lehena Muxik egin zuen, eta bigarrena eta ikusgarriena Jon Murua-rena izan zen. Aurtengo



Intxurreren kontra Mondrak hainbat gol aukera izan zituen.

Elgoibarren kontra irabaziz gero, taldeak lasai hartu dezake Aste Santuko oporraldia

helburua lortzeko, preferente mailara igotzeko, Mondrak beste pauso bat eman zuen, eta hori izan zen azpimarragarriena.

Oraingo asteburuan, Mondrak Elgoibarren kontra jokatu du.

Atxabalpen arrasatearrak erraz nagusitu ziren (7-1), baina Elgoibar puntu beharrean da, eta euren zelaian jokatzeko beste kontu bat izango da. Mondraren aurkari zuzenek ere kanpoan jokatu dute: Urolak Oriokoren kontra jokatu beharko du, eta Zumaiakok Soroluzeren kontra neurtu beharko ditu indarrak.

Oraingo asteburuan, Mondrak egin dezakeen onena, Elgoibarren kontra irabaztea eta Aste Santuko oporraldia lasai igarotzea da. Oporrak eta gero ere egongo da zertaz arduratu: hil ala biziko hiru partidu izango dira-eta.

Debarro Txapelketan, Aretxabaletako pilotariak nagusitu ziren

Debarro Txapelketan, Arrasateko pilotariak Aretxabaletako pilotarien kontra jokatu zuten martitzenean. Gazte mailako pilotarien partidua, eta senior mailako pilotarien partidua izan zen ikusgai, eta bi partiduetan Aretxabaleta nagusitu zen. Gazte mailako partiduan, Aretxabaleta 22-8 nagusitu zen. Senior mailako partiduan, Zugastik eta Lazkanok Errasti anaien kontra jokatu zuten, eta gazte mailako partidua baino parekatuagoa izan bazen ere, Errasti anaiak nagusitu ziren (22-19).

Aretxabaletako pilotarien kontra galdu egin badute ere,

Arrasate lan polita egiten dabil Debarro Txapelketan.

BOST PARTIDUTATIK BAKARRA GALDU Senior mailako pilotariak Uda-berri Txapelketatik kanpo geratu zirenean, Debarro Txapelketan hasi ziren buru-belarri. Dagoeneko amaitu da Debarro Txapelketako lehen itzulia, eta mondragoetarrek bost partidutatik bakarra galdu dute: Aretxabaletaren kontra.

Txapelketa horretako lehenengo fasea amaitzeko beste bost partidu geratzen dira, eta mondragoetarrek lehenengo itzuliko emaitzak eskuratzen badituzte,

Arrasate Debarro Txapelketako finalerdietan izango da.

Gazte mailako pilotariak, berriz, hiru partidu jokatu eta bakarra irabazi dute. Argi dago, beraz, gazte mailako pilotariak ere aurrera egin dezaten, bigarren itzulian maila hobea erakutsi beharko dutela.

Debarro Txapelketan, datozen asteotan deskantsua izango dute, eta apirilaren 22an hasiko da bigarren itzulia. Arrasateko pilotariak Eskoriatzako pilotarien kontra neurtuko dituzte indarrak. Lehenengo itzuliko partiduan, Arrasate erraz nagusitu zen.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZALEAK

Lasagabaster, Dribling edo Etxinai! taldea sailkatuko da laugarren postuan.

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Betrayer	2-5
Lasagabaster - You Know!	1-4
Dribling.es.vg - Fuxxion	4-4
Bikain Akademia - Etxinai!	5-8

B MULTZOA

AC Surcos - Koka Juniors	6-1
AT Celaya - Aurrera Bolie	1-0
Iriztu Taberna - Goma-2	4-4
Etxerat - Makanaki	5-2
AC Surcos - AT Celaya	6-3

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Betrayer	10	6
2. You Know!	9	6
3. Saukelu Scream	9	6
4. Lasagabaster	6	6
5. Dribling.es.vg	6	6
6. Etxinai!	5	6
7. Fuxxion	3	6
8. Bikain Akademia	0	6

B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	10	6
2. AC Surcos	10	6
3. AT Celaya	8	6
4. Goma-2	6	6
5. Koka Juniors	5	6
6. Iriztu Taberna	4	6
7. Makanaki	3	6
8. Aurrera Bolie	2	6

PARTIDUAK

APIRILAK 12, ZAPATUA. EPAILEAK

10:50: Koka Juniors - Goma-2.	Antola.
12:00: Lasagabaster - Etxinai!	Antola.
13:00: AT Celaya - Makanaki.	Antola.
15:50: Betrayer - Fuxxion.	Antola.
17:00: Iriztu Taberna - Etxerat.	Antola.
18:00: Dribling.es.vg - Bikain Akad.	Antola.

APIRILAK 13, DOMEGA

10:50: Saukelu Scream - You Know!	Antola.
-----------------------------------	---------

Deskantsua: AC Surcos.

BIGARREN FASEKO AZKEN PARTIDUA JOKOAN

PARTIDU INTERESGARRIENA: KOKA JUNIORS - GOMA2

Asteburuan hainbat partidu interesgarri izango dira, baina interesgarriena Goma-2 eta Koka Juniors taldeek jokatu dutena da. Koka Juniors taldeak derrigor irabazi behar du final laurdenetara sailkatu gura badu. Goma-2 taldeak, berriz, partidua berdintzearekin nahikoa izango du, baina hauek ere irabazteko asmoz kantxaratuko dira. Norgehiagoka ikusgarria izango da, partidu garrantzitsua izateaz gain, lagun arteko derbia izango delako. Ea epaileak lan polita egiten duen, zaila izango da-eta.

ZIGORREK EZ DUTE BEHERA EGITEN

Aurrera Bolie taldea txapelketatik kanpo geratu da, joan den astean partidura ez azaltzeagatik. Horrez gain, Saukelu Scream taldeko jokalaririk batek 5 partiduko zigorra bete beharko du, Dribling taldeko jokalaririk bati eraso egiteagatik.

PILOTA

Rai eta Koka Uarkapen izango dira, Buruz Buruko Pilota Txapelketako partiduan

Biharko pilota jaialdia ikusteko sarrerek ohi baino salneurri baxuagoa izango dute: 20 eurotan jarri dituzte

XABIER URZELAI

Bihar (Uarkape, 17:00) Buruz Buruko Txapelketa barruan, Rai eta Juantxo Koka izango dira nor baino nor. Eguaztenean, pilota aukeraketa izan zen Uarkapen, eta pilotariak gustura geratu ziren aukeratu-tako materialarekin.

Ikusteko moduko pilota jaialdia izango da bihar arratsaldean Arrasaten. Guztira hiru partidu izango dira ikusgai Uarkapen, baina lehenengo partidua izango da garrantzitsuen. Rai eta Juantxo Koka izango dira aurrez aurre, eta ikusteko moduko izango da bi pilotari hauen arteko lehia.

Eguaztenean, partidurako materiala aukeratzeko izan ziren bi pilotariak Arrasaten, eta biak ere gustura azaldu ziren saskian aurkitu zuten materialarekin.


Kokak 104,4 eta 101,8 gramoko pilotak aukeratu zituen. Raik, berriz, 103,1 eta 102,8 gramoko pilotak. Villamediana de Iregua-pilotariak aukeratu-tako mate-

rialari erdi botekoa da. Altzako pilotariak aukeratu-tako materialak, berriz, bote handixeagoa du.

Biharko partiduko irabazleak aurrera egingo du Buruz Buruko Txapelketan. Raik Esain nafarra utzi zuen atzean aurreko partiduan (22-18). Juantxo Kokak, berriz, Apeztegiari irabazita eskratu zuen biharko partidurako txartela (22-20). Norgehiagoka biak oso gogorak izan ziren, eta bai Raik eta baita Kokak ere gogotik egin behar izan zuten lan partidua irabazteko.

BESTE BI PARTIDU ERE IZANGO DIRA

Buruz buruko partidua eta gero, eskuz binakako bi partidu izango dira ikusgai. Lehenengo, Unanue eta Errastik Esain eta Armandaritzen kontra jokatu dute. Ondoren, Retegi VI.a eta Medina mexikarra Azpiroz eta Bengoetxea V.aren kontra lehiatu dira. Uarkapeko lehiatilak 15:30ean irekiko dituzte, eta sarrera 20 eurokoa izango da: ohi dena baino merkeagoa.



Rai eta Juantxo Koka, eguaztenean, Uarkape pilotalekuan izan ziren pilota aukeraketan.

MAIDER OSA

PACK Gaztea

95€

Pack-a:
sei hilabeterako
lentillak eta
likidoak

Eskaintza berezia
Pack bakoitzeko,
agenda
elektroniko
bat opari

Multi bio plus

Multi lens

graduatuak

59
eurotik aurrera

nobedadeak
eguzkitako
betaurrekoetan

Eskaintzaren balioa 2003/5/31 arte.

R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

MULTIOPTICAS

J. Carlos Guerra 1 • Tel. 943 79 29 25 • ARRASATE



ELKARRIZKETA

RAMON ZUMALABE/MARGOLARIA

“Gurago dut nire kasa ikastea, bidea zailagoa da, baina emaitza garbiagoa”

IKER BARANDIARAN

Ramon Zumalabe bilbotarrak gaur, egubakoitza, margolan erakusketa inauguratu du Arregi galerian. Urte mordo darama margotzen eta oso estilo berezia dauka. Bere estiloa ikusi barik azaldu ezin daitekeela dio.

Gaztetxotatik datorkizu margotzeko zaletasuna?


Bai, 11 urterekin, ikasketak utzi nituen arte, koaderno guztiak margoekin zikintzen nituen. Oso gazte lanean hasi nintzen, eta geroztik ez dut koadernorik erabili. 10 urterekin, olioekin margotzen hasi nintzen, eta 14 urterekin, beste hainbat lagunekin, nire lehenengo erakusketa jarri nuen.

Zure kasa margotzen ikasi duzula entzun dut...

Bai, ez dut inoiz margo irakaspenerik jaso. Are gehiago, gurago dut beste margolari batzuen lanak ez ikustea, ezta egiten dutena ikastea ere. Lagunen erakusketak bakarrik ikusten ditut. Gurago dut nire kasa ikastea, bidea zailagoa da, baina emaitza askoz garbiagoa da.

Zure lanak erakusgai jarritza atsegin duzu?

Alper samarra naiz, eta due la gutxi Bilboko La Brochan erakusketa jarri nuen arte, hamalau urte egin nituen erakusketak egin barik. Aurretik, Madrilén, Bilbon, Xixonen eta beste leku batzuetan erakusketak ipini nituen. La Brochako erakusketan saldu nituen lanekin arrantzan joateko txalupa erosi nuen. Hori da gehien atsegin dudana, lasai-lasai arran-



ARRASATE PRESS

tzan joatea eta txango horietan inspiratzen naiz.

Noiz eta zelan margotzen duzu?

Etengabe, edozein lekutan marrazkiak egiten ditut. Gauzak oso argi eduki arte, ostera, ez dut margotzen. Sentsazio indartsua etortzen zaidanean, 30 margolan ia antzekoak egiteko gai naiz. Kritikoak nirekin haserretu egi-

“Gauzak oso argi eduki arte ez dut margotzen. Sentsazio indartsua behar izaten dut”

ten dira.

Zeren gainekoak dira zure margolanak?

Oso estilo berezia daukat. Marrazkia asko erabiltzen dut, olio ere bai, askotan kartoiak margolanean itsatsi egiten ditut eta horietaz baliatuz, irudiak osatzen ditut. Ikusi beharko duzue... Arrasateko erakusketa kobatan eta sexuan oinarrituta dago.

**‘Irakurtzearen gozamina’, iruditan**

Arrasateko Udal Liburutegiak beste erakusketa bat ekarri digu Monterronera. Salamancako Udalak, urtero, irakurtzearekin eta irakurzaleatasunarekin lotutako argazki lehiaketa antolatzen du, eta lan onenekin erakusketa egiten du.

Erakusketa herriz herri ikusgai jartzen dihardute eta joan den astelehenetik Monterronen ikus daiteke. Monterrongo erakusketa lehiaketa horren 8. edizioa da (dagoeneko, 10.ena egin dute) eta oso interesgarria da //B.

KULTURAPILULAK

Jon Zabalek magia ikuskizuna eskainiko du lamain

Gaur, egubakoitza, Jon Zabalek magia eta ilusionismo ikuskizuna eskainiko du lamain kafetegian, gaurdian. Sarreara doan izango da.

Iamain kafetegiko arduradunak pozik daude egubakoitzero antolatzen dituzten ikuskizunek izan duten harrerarengatik. Orain arte lau ikuskizun izan dituzte eta laurak interesa piztu dute herriartarengan: Gasteizko Kuku Bazar, Gasteizko Detritus Teatro, Bilboko Oliver eta Madrilgo Torpedolevel pasatu dira lamaitik, hain zuzen ere.

Aste Santuan atsedean hartuko duten arren, oporren osterako ikuskizun berezia antolatu dute. Adi egon!

Liburuaren Eguna ospatzeko ekitaldiak hasi dira

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatzen dela aprobetxatuz, Arrasateko Udal Liburutegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu, dagoeneko. Aipatutako argazki erakusketaz gain (*Irakurtzearen gozamina, iruditan*), beste hainbat ekintza antolatu dituzte.

Joan den astelehenean eta eguaztenean, literatur solasaldiak egin zituzten: astelehenean, Carmen eta Mateo Falconeren *Prosper Mérimée* irakurri zuten. Eguaztenean, ostera, Agosto Monterrosoren *La oveja negra* landu zuten.

Horrez gain, ipuin kontaketa ere antolatu dituzte: joan den martizenean, Alaitz Murok 4 eta 6 urte arteko umei ipuinak kontatu zizkien. Egubakoitzean, ostera, Alaitz Murok 6 eta 8 urte arteko umeendako kontaketa egin zuen.

Arizmendi ikastolak Irakurleen Astea antolatu du

Apirilaren 2an, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela -Hans Christian Andersen oroimenez- aprobetxatuz, eta apirilaren 23an Munduarteko Liburuaren Eguna dela gogora ekarri asmoz, Arizmendi ikastolak Irakurleen Astea antolatu du.

Ekintzak joan den astelehenean hasi ziren eta eguaztentera arte iraun zuten. Bitartean, ikastolako gune guztietako ikasleek irakurketak egin zituzten; haur eta gazteei zuzendutako liburu-gida berezia kaleratu zuten; eta gurasoendako berbaldiak antolatu zituzten. Hain zuzen ere, Antton Irustak *Nola kontatu ipuinak haurrei* berbaldia eman zuen bi gunetan.

E, TXO!

**TXATXILIPURDI,
BEGIRALE BILA**

Txatxilipurdik 2003ko udalekuetan begirale izan gura dutenei dei egin die. Interesatuek curriculum-a, argazki bat, begirale titulua eta NAREN kopia aurkeztu beharko dituzte Txatxilipurdiren egoitzan, apirilaren 16a baino lehenago. Bete beharreko baldintzak honako hauek dira: 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz jakitea eta Txatxilipurdik antolatzen dituen eragile formazio saioretara joatea. Informazio zabalagoa, 943 77 17 39 telefonoan (Jaione edo Itziar).

BEGIRALEEN LAGUNTAILEAK

Txatxilipurdik udalekuetarako begirale laguntzaileak behar ditu. Boluntario lanetan ibiliko dira eta, bide batez, begirale lana ikasiko dute. 16 eta 18 urte artean izan beharko dituzte. Interesatuok, jo Txatxilipurdira.

'LARUNBLAI'

Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* tailerra antolatu du. 11:00etatik 13:30era Atabala tailerra antolatu dute Herriko plazan umeendako eta gaztetxoendako.

GAZTEMANIAK

LEHIAKETARAKO DEIALDIA
Apirilaren 30ean bukatuko da VII. Gaztemaniak Maketa Lehiaketan lanak aurkezteko epea. Aurkezten diren talde guztien artean hamabost aukeratu ditu epaimahaiak eta disko baten jasoko dituzte talde horien lanak. Informazio zabalagoa gura izanez gero, jo honako webgunera: www.gipuzkoa.net.

**ITZULPEN PRAKTIKAK
EGITEKO BEKAK**

Aldundiak itzulpen praktikak egiteko bekak eman ditu. Maiatzaren 30a baino lehen, informatu 943 11 35 13 telefonoan.

GUREGAIK/ 'MAGIC' TXAPELKETA

'Magic' jokoaren hirugarren txapelketa zapatuan jokatu dute

IKER BARANDIARAN


Arrasateko Valle de Pendrell taldeak Arrasateko Hirugarren Magic Txapelketa antolatu du. Modan dagoen joko horretara jokatzeko, fantasiako irudiak dituzten karta berezi batzuk erabili behar dira.

Bihar, zapatua, Valle de Pendrell taldeak Arrasateko Hirugarren Magic Txapelketa antolatu du. Herriko Plazan jokatu dute eta 10:30ean hasiko da. Izenematea hiru eurokoa izango da, eta *Standard* motako kartekin bakarrik jokatu ahal izango dute. Horrekin batera, honako gehigarriak ere erabili ahal izango dituzte: *Odisea*, *Tormento*, *Juicio*, *Embessida*, *Legiones* eta *Septima Edicion*.

*Bihar, zapatua,
Arrasateko
Hirugarren Magic
Txapelketa jokatu
dute Herriko Plazan*

'MAGIC ROL'

Gazte asko *El Señor de los Anillos* eta antzeko fantasiako istorioen itxurazko irudiak dituzten karta horiekin zaletu da. Karta horiek eta kartekin egiten dituzten jokoek oihartzun handia hartu dute, eta orain dela gutxi arte ibarreko gazteek halako kartak esku-



Magic rol jokoaren zaletu asko batuko dira Herriko Plazan.

ratzeko Gasteizera edo beste hiri-buetara joan beharra zuten. Beranduago, ordea, karta

horiek Arrasatera ekarri zituzten, eta badirudi zaletu kopurua handituz doala.

LOTSABARIK/ Jone Godoy

"Modeloek duten bizimodua ez da niretako"

IKER BARANDIARAN

Jonek lotsatia dela esan zigun, baina *Lotsabarik*-erako jende faltan gaudela jakin zuenean, bere burua eskaini zuen guri mesedea egitearren. Azkenean, gustura egon zen gurekin bere kontuen gainean berrikerian.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Beste neska askok bezala, modelo izan gura nuen, baina gero konturatu nintzen modeloek duten bizimodua ez dela niretako. Horrez gain, erizain ere izan gura nuen. Gaur egun, kirolarekin edo dietetikarekin lotutako lanbideren bat topatuko

nuke.

• Zelan ikusten duzu zure burua hemendik 20 urtera?

Euskal Herrian biziko nintzateke, ahal bada Arrasaten. Ez dut uste ezkonduko naizenik, baina ziurrenik bikotearekin eta bi seme-alabekin biziko naiz, eta lanean egongo naiz.

• Zein da, zeure iritziz, adin ideiala?

Orain daukadana, ondo dago. Azken finean, gauza asko egiteko askatasuna daukat.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Familiari, mutilari eta lagunei.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan, ikasketek. Bestela, familiak eta lagunak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Gauza askok. Jendearen aurrean lurrera jausteak eta antzeko egoerek. Baita elkarrizketa hau argitaratzeak ere.

• Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?


Jendeari entzuteko gaitasuna daukat, baina kexati samarra naitzela diote.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Nire begiak, berdeak direlako.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?

Lehenengo, begiei eta ezpainei.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Batxilergoko bigarren maila • ZALETASUNAK: Kirola, musika entzutea eta lagunekin ibiltzea
LIBURU BAT: 'Sprako tranbia' • FILM BAT: 'Gladiator' • MUSIKA TALDEA: Ramstein eta Blink 182 • KIROL TALDEA: Reala

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak osagaiak
Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

BEHEKODENDATIK

Javier Ugarte

ARRASATE ORTOPEDIXAKUE

XABIER URZELAI

Javier Gasteizen bizi da, baiñe aspaldi zabaldu euen Arrasaten ortopedixie. Arrasate leku aproposa ei zan ortopedixa bat zabalketako, eta bi bider pentsau barik Arrasatera etorri zan. Javierren esanetan, lanbide hori asko aldatu da, eta oin punta-puntako teknologiak in egitten daue lan.

Txikittan ze gure zeuen izen?
Pelotarixe edo ziklistie.
Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?

Bi bider pentsau barik! Bada- kitzu zenbat irabazten dauien?

Ze esango zeuskio Saddam Husseiniei? Eta Bushiei? Eta Aznarrei?

Abesti bat hirurendako: *No me llames iluso...*

Drogak legalizauko zeuke?
Bai.

Eta prostituziñue?
Hori be bai.

Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?

Un pez llamado Wanda / Caballo de Troya / The Beatles eta Joaquín Sabina.

Nora juengo zitzake gustora?
Sevillara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Andrie eta semiek.

Etxeko lanik gorrotagarriena?

Etxeko lanak egitten aspaldi ikasi nauen, eta ez da lan gogorra.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Bai. Lekuak ez dauko inportantziarik. Gustora bazaz...

Puntuau Mondragueko girue.

Arrasatera lanera bakarrik etorten naz, hortan...


Ze dauko ona udaberriek?
Argi gehixago daukegule.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Eskuek.

Jefiari ze esango zeuskio gustora?

Lehen zera esaten nutzen: tran-



“Punta-puntako teknologiak in egitten dogu lan, eta hankak die gure espezialidadie”

“Ortopedixiai beldurra kendu biher jako: jentiai lagunketako egitten dogu lan”

kil, txo!
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Ez dauket horretarako edaderik!
Pertsona baten, zertan fije- tan zara lehenengo?
Aurpegixen, eta batez be begi- xetan.
Denpora librien ze egitten dozu?
Etxetik kanpo lan egitten dogun gehixenon moduen, fami- liak in egon.
Janari eta edari gustokue- nak?
Jateko, arrautzak urdeiazpi- kuakin; edateko, ardaue.
Ze albiste irakurriko zeuke

gustora ARRASATE PRESSen?
Herrittarron arazo danak kon- pondu egin diela.
Ortopedia Arrasaten ze da gehixen egitten dozuen lana?
Gorputz danakin egitten dogu lan, baiñe hankak die gure espe- zialidadie.
Kirola ona bada, zergaittik etorten die hona horrenbeste kirolari?
Kirolak be arrisku batzuk dittuelako.
Geure burue zaintzeko gomendixio bat?
Bakoitzak badaki bere burua zelan zaindu. Hala ta be, ortopedi- xiai beldurra kendu biher jako: lagunketako gaz hemen.

NIREBIDAIAHURA/ Mikel Loiti

Peru eta Bolivia / 2003ko otsaila eta martxo

Mikel orain dela aste gutxi itzuli da Hego Ame- rikatik. Horrelako bidaia bat egin eta gero, berri- ro ere egunerokora bueltatzea ez da samurra izaten, eta horretan dabil Mikel. Perura joate- ko asmoz abiatu zen Hego Amerikara: “Hasi- era baten, Peru ezagutzea zen nire helburua, baina hara iritsitakoan bere- hala aldatu nituen planak”. Peruko hiriburura, Limara, iritsitakoan, taxi bat hartu eta hotel batera joan zen zuzenean: “Hotelerako bidean, taxi gida- riak nora ez joan erakutsi zidan, eta hotelera iritsi nintzenera- ko hiri erdi baino gehiago arris- kutsua zela konturatu nintzen”.

Bi egun baino ez zituen egin Mikelek Liman, eta bere esa- netan hiriburuan geratzea ez du askorik merezi. Hortaz, hego- alderantz jo zuen Mikelek. Kos- taldean aste eta erdi egin zuen, eta segidan mendi aldera jo zuen. Arequipan astebete egin zuen, eta Mikelen esanetan leku ikusgarria da hura.

Arequipa atzean utzi eta Titikaka lakura iritsi zen Mikel: “Titikaka lakua da, baina itsa- soa dirudi. 200 kilometro luze da, eta 60 kilometro zabal. Lakuaren inguruan dauden herritxoek kostaldeko herriak dirudite, arrantzatik bizi dira”. Mikelen esanetan han bizi izatea ez da batere samurra: “Titikaka lakua oso garai dago, eta eguzkiak gogor jotzen du han. Hango bizilagunek oso zaharrak dirudite, azala belztuta dute, eta bizimodua ez da batere erraza”. Titikaka lakura uste baino lehenago iritsi zen Mikel: “Lehenago Machu Picchura joan gura nuen, baina bidea itxita zegoen eta hegoalde- tik bueltatzerako- an beste saiakera bat egingo nuela erabaki nuen. Ordu- rako, baina, batek baino gehiagok esan zidan Boliviara joatea merezi zuela, eta, hala, Titikaka lakutik Bolivi- arako bidea hartu nuen”.

Bolivian La Pazerako bidea hartu zuen Mikelek: “Peru eta Bolivia artean alde handia dago. Bolivia Peru baino pobreagoa da, eta turismo gutxiago dago”. Datorren aste- an, Mikelek Bolivian bizi izandakoak kontatuko dizkizuegu.



“Bolivian Perun baino turismo gutxiago dago”

XABIER URZELAI



Machu Picchu, inken hiria.

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Gorka ileapaindegia peluqueria

Orduetgia:
Asteleneetik-ostiralera 09.30-20.00
Larunbatetan 08.00-14.00
Feriariak 35 - 943 77 13 78

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

ZAHARRENETXETIK



IKER BARANDIARAN

Erretiratu multzo polita elkartzten da Uribarrin mendi ibilaldiak egiteko asmoarekin.

Uribarriko erretiratuen elkarteak hilean behin mendi ibilaldiak antolatu ditu

IKER BARANDIARAN

Uribarriko erretiratuen elkarteak hilean behin mendi ibilaldiak antolatu ditu. Joan den urtean moduan, aurten ere, udaberriatik udazkenara arte hilean behin mendi ibilaldiak antolatu dituzte. Joan den eguenean, 36 lagunek Garagartzara jo zuten.

Uribarriko erretiratuen elkarteak hilean behin mendi ibilaldiak antolatzen hasi da, berriro. Joan den eguenean, apirilaren 3an,

bazkal ostean, 36 lagun elkartearen bertan elkartu eta Garagartzaraino jo zuten paseoan.

Elkartean elkartutako kaze-tariei jaramon egin eta horren ondoren, Uribarritik behera jaitsi ziren erretiratuak, kale agerraldian joango balira moduan. Eskola Profesionalaren atzetik joan ziren, Alecop albotik pasatu ziren eta Markulete industrialdea atzean utzi zuten. Sasoian ikusi genituen erretiratuak: Garagartzako plaza albo batera utzi eta auzoko harrobiraino jo zuten.

Eguraldiak paseoan ibili zirenei lagundu zien. Eguzkiak ondo berotu zituen erretiratuak eta horri esker haize hotzari aurre egin ahal izan zioten. Taldeko gehienak emakumeak ziren, erretiratuen elkarteek antolatzen dituzten ekimen gehienetan gertatzen den moduan.

KIROLAREN ONDOREN, MEREZITAKOIA

Uribarriko erretiratuak 18:30ak aldera bueltatu ziren elkartera eta han merezitako ongietorria zain zeukaten: elkarteak paseoan joandako bakoitzari ogitarteko

eta edari bana oparitu zion. Askari goxoa jan ondoren, gehienak karta-jokoan hasi ziren, eta han egon ziren kontu-kontari, afal ordua heldu zen arte.


Joan zen urtean egin zuen moduan, aurten Uribarriko elkarteak hilean behin mendi ibilaldi bana antolatu gura du. Seguruenik, maiatzean, Gernika Oinezkoen Zumardian ipini duten zubi berria inauguratzeko ibilaldia antolatuko du. Eta gainontzeko hilabeteetan ere beste mendi ibilaldi arinak antolatuko ditu, jaso duten harrera ikusita.

Eskulan ikastaroa, asteen bi egunez

Abaroa erretiratuen elkarteak eskulan ikastarorako beste irakasle bat kontratatu du. Abaroa elkartearen aspalditik dabilta ikastaro horiek ematen, eta aspaldian ikastaroko partaideek beste irakasle baten premia ikusten zuten.

Partaideen eskaerari erantzunez, Abaroako batzarrek beste irakasle bat kontratatu du. Irakasle berria Asun Mendizabal da, eta Asunek eskolak eguaztenetan emango ditu (15:00etatik 17:00etara). Maiatzeko lehenengo eguaztenean hasiko da lanean.

Ines Murillo irakasleak ere eguenero ematen ditu eskulan eskolak Abaroan. Eguaztenetan edo eguaztenetan eskolak jaso dituenak Abaroara jo beharko du. /I.B.



JAKINGARRIAK

1936ko eta 1940ko emakumeak

1940an jaiotako emakumeek urteroko batzarra egingo dute bihar, zapatua. 13:00etan meza egingo dute San Juan Bautista elizan. Horren ondoren, bazkaria egingo dute Musakola Hostalean. Beraz, giro polita egongo da Musakola aldean, eta baietz batek baino gehiagok Musakola Hostalean dantza egin!

1936an jaiotako emakumeek ere badute zer ospatu. Maiatzaren 10ean urteroko batzarra egingo dute. 13:00etan meza egingo dute San Juan Bautista elizan. Horren ondoren, bazkaria antolatu dute Musakola Hostalean. Interesatuak izena eman maiatzaren 2aren aurretik Muruamendiarrak zozotegian (Erdiko kale). 10 euro ordaindu beharko dute.

Oropesara bidaiara eta berbaldia, Abaroan

Abaroa elkarteak maiatzaren 11tik 18ra bitartean Oropesa del Mar-era antolatu duten txangorako bi leku libre gelditzen dira, leku bakoitza autobus baten. Norbait Oropesa del Mar-era joateko interesatuta badago, lehenbailehen bulego orduetan (18:00etatik 19:30era), Abaroara jo eta izena eman, besterik ez du egin behar.

Bestalde, martitzenean, apirilaren 15ean, berbaldia egingo dute Abaroan. Kutxak antolatuta, Juan Carlos Morak euskal abizenen gainean berba egingo du, 18:30ean. Jakin badakizue berbaldiak doan direla.

Abaroatik irteera, Corellara

Abaroa erretiratuen elkarteak Corellara txangoa antolatu du apirilaren 24rako. Goizean irten eta Gasteiz atzean utzita, hamarretakoa Logroñon egingo dute. Horren ondoren, Corellara joko dute eta han konbertsa-entresa bisitatuko dute, baita ardo eta moskatel upelategiak ere.

Oraindik goserik badute, Azagrako Hostal Veneziar bazkalduko dute. Izena emateko epea bukatzean dago, beraz jo lehenbailehen Abaroako bulegora. Bi autobus jarriko dituzte, eta joan gura duenak 15 euro ordaindu beharko ditu.



ARRASATE
Olaya Saldaña
Apirilaren 12an, 23 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Amaia Pombar
Apirilaren 16an, 20 urte.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Arkaitz Agirrezabal
Apirilaren 6an, 12 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Beatriz Nova
Apirilaren 13an, 19 urte.
Zorionak! Izebaren eta koadrilako partetik.



ARRASATE
Markel Benito
Apirilaren 11n, 2 urte.
Zorionak! Maite zaitugu! Alaitz, Ander, Unai eta etxekoak.



ARRASATE
Ikeia Iborra
Apirilaren 16an, 14 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Aritz Vinacua
Apirilaren 12an, 10 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Joxepa Arregi
Apirilaren 8an, 84 urte.
Euskarri Herriko amamari, Arrasateko herriaren partetik.



ARRASATE
Iñigo Agirre
Apirilaren 11n, 26 urte.
Zorionak! TMT.



ARRASATE
Josu Errasti
Apirilaren 13an, 26 urte.
Zorionak, Erras! TMT.



ARRASATE
Ana Mari Díez
Apirilaren 11n, urtebetetzea.
Zorionak, amatxo. Zorionak, amama.



ARRASATE
Yoel Berenguer
Apirilaren 16an, 10 urte.
Zorionak! Amatxo, amama, Ruben eta osaba-izebak.



ARRASATE
Naiara Zabala
Apirilaren 10ean, 13 urte.
Zorionak! Koadrilako eta etxeko partetik.



ARRASATE
Amets Ormaetxea
Apirilaren 14an, 6 urte.
Zorionak! Etxekoak eta lbaixikiak.



ARRASATE
Danel Oruna
Apirilaren 18an, 8 urte.
Zorionak! Familiako partetik.



ARAMAIO
Ane Uriarte
Apirilaren 13an, 15 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARAMAIO
Erik García
Apirilaren 11n, 28 urte.
Zorionak! Eukeneren partetik. Aupa, UDA!



ARRASATE
Fertxu Rodríguez
Apirilaren 14an, urtebetetzea.
Zorionak! Nerea, aita, ama, Leire, Iñaki eta Naia.



ARRASATE
Rafa Mungia
Apirilaren 20an, urtebetetzea.
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE
Soraia Iglesias
Apirilaren 15ean, urtebetetzea.
Zorionak, amatxo! Aita, Aitor eta Josu.



ARRASATE
Hodei Beitia
Apirilaren 16ean, urtebetetzea.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Cesar Azkarate
Apirilaren 17an, urtebetetzea.
Zorionak! Aitaxo, amatxo, Sergio, Larra, Saio.



ARRASATE
Jesus Beitia
Apirilaren 17an, urtebetetzea.
Zorionak! Familiako partetik.



ARRASATE
Agurtzane Agiriano
Apirilaren 5ean, urtebetetzea.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Jessica Barkero
Apirilaren 15ean, 20 urte.
Zorionak! Koadrilako partetik.



ARRASATE
Nerea Petreñas
Apirilaren 10ean, 9 urte.
Zorionak! Aitaxo, amatxo eta Xabi.



ARRASATE
Iruñe Loza
Apirilaren 13an, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak, amama eta osaba.



ARRASATE
Iزارo Uribarren
Apirilaren 10ean, 3 urte.
Zorionak! Amatxo eta aitaxo.



ARRASATE
Iker Barrena
Apirilaren 18an, 15 urte.
Zorionak! Etxeko partetik.



ARRASATE
Judith Delgado
Apirilaren 8an, 16 urte.
Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Maitane Ugarte
Apirilaren 7an, 4 urte.
Zorionak! Familiakoak.

Adi!


Argazkiak emateko lekua:
ARRASATE PRESS
Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

EZETZASMATU



Zein auzotan egingo dute bolalekua?
Arrastoa: lehenago ere bazuen bolalekua auzo horrek.

UBANE MADERA



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Marbu Dorada gailetak
800 g-ko kaxa + Diver doan

1,42€ 236 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

PATXI AGIRREBEÑArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Patxi!
Galderen erantzun zuzena:
Egitamu Orokorra.

ARRASATEKO HISTORIA

Doke jokoa (edo Arran) eta Oñatiko jaunaren jabetzak

JON ANDER RAMOS

Pedro Vélez de Gebararen ondoren, haren anaia Iñigok hartu zuen Oñatiko jaurerria. Sasoi hartan oraindik ere Arrasateko erreketak eragindako zauriak bizirik zirauen. Eta mendeku ugari izan ziren. Egoera horrekin aspertuta, zerbait egitea erabaki zuten.

Oñatikoek, Arrasatekoek, Egiluz anaidikoek, Etura eta Ganboa anaidikoek, Leintz ibarrekoek eta Leintz Gatzaga-koek, norik bere ahaldunak izendatu zituen. Guztiak, Iñigo de Gebara buru zutela, Aretxabaletan elkartu ziren 1461eko maiatzaren 1ean, eta eragindako hilketak, erreketak, lapurretak eta elkarririk gabe zizkioten. Arrasateri 250.000 marabedi eman zizkioten.

Barkamenaren eta laguntasunaren gutun hura 1470eko azaroaren 22an berretsi zuten.

Egun berean Iñigo de Gebarak Zaldibarren zituen jabetza guztiak erosi zizkion Arrasatek, 300.000 marabediren truke; kontuan hartu barik 1451n 60.000 marabedi ordaindu zizkiola anaidiari gauza

*Eragindako
hilketak, erreketak,
lapurretak-eta
elkarririk gabe
zizkioten*

*Oñatiko kondeak
urteroko
ohiturarekin segitu
zuen: Zaldibarren
belarra mozten zuten*

beragatik. Itxura denez, lehenago ordaindutako kopurua huskeria hutsa zen, eta Arrasateko bakea babestearren erosi zuten bigarren aldiz Zaldibar.

Kontuak kontu, Oñatiko kondeak urteroko ohiturarekin jarraitu zuen: Zaldibarrera joaten zen, eta hango zelaiko belarra mozten zuten, bere jabetza zela adierazteko.



ARTXIBOA

Gaur egun Egubakoitz Santuan egiten da Arrasaten doke jokoa, SUDCek antolatuta.

Arrasatearrek ez zuten hori gustuko. Eta erabaki zuten kondearekin doke jokoa egitea, urteko egunik sakratuean: Egubakoitz Santuan. Arrasatearrek irabazi zuten, eta Zaldibar, behin betiko,

arrasatearrendako izan zen.

Dokea: zortzi metrora marra bat marrazten da, eta haren ingurura txanponak bota behar dira. Txanponak marra-tik zenbat eta gertuago bota, orduan eta puntu gehiago. Era

berean, marran bertan aitzo bat sartuta egoten da. Haren kontra jotzen duten txanponek puntuazio berezia dute. Baita aitzoaren inguruan egindako 10 zentimetroko lauki barrura jausten diren txanponek ere.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko apirilaren 11 / 61. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorala Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


Iker Agirre lehenengoa Dulantziko kanporaketan

UBANE MADERA

Iker Agirre aramaioarrak eskuratu zuen puntu gehien Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketan. Bihar, zapatua, Andere Arriolabengoaren txanda da.

Joan den zapatuan (hilak 5) Dulantzín hasi zen eta datorren ekainaren lean Gasteizen bukatuko da aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketa. Bertsolariek bi kanporaketatan jardun beharko dute, eta bi kanporaketetan puntu gehien lortzen duten seiak iritsiko dira final aurrekoetara.

Iker Agirre eta Andere Arriolabengoa bertsolariek ordezkaturiko dute aurten Aramaio. Eta, dagoeneko hasi dira emaitza politik poltsikoratzen. Izan ere, zapatuan, Dulantziko kanporaketan, Iker Agirrek 129 puntu eskuratu zituen, eta horri esker, sei bertsolarik osatutako taldeko lehena bera izan zen. Ofizioka zortziko nagusian bina bertso, ofizioka zortziko txikian hiruna bertso eta lau oinak emanda eta hitza emanda beste pare bat bertso egin behar izan



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Iker Agirre, (ezkerretik bigarrena) Dulantziko kanporaketan.

zituzten lehiakideek. Naroa Sasieita ibili zen gidari lanak egiten.

Hurrengo kanporaketa, bihar, zapatua izango da, Bastidako kultur etxean, 19:00etan. Andere Arriolabengoa beste bost bertsolariren kontra jardun beharko da.

FINALA GASTEIZEN

Esan bezala, bi kanporaketetan puntu gehien lortzen duten seiak

pasatuko dira final aurrekoetara. Legutianon izango da lehenengo final aurrekoa, maiatzaren 10ean, 18:30ean, kultur etxean; eta Amurrión izango da bigarrena, maiatzaren 17an; hori ere 18:30ean, Zeraobe Institutuan.

Eta, ohi moduan, Gasteizen jokatuiko dute finala. Ekainaren lean izango da, Gasteizko Printzipal Antzokian, 17:30ean.

Aizkolariak eta pilota partiduak, Arbel Egunean

UBANE MADERA

Iritsi da urteroko Arbel Eguna. Arbel Baserritar Elkartearen kontuak zurrizteko eguna. Baina, beste elkarte edo enpresa batzuetan ez bezala, Arbelekoek egun hori jai bilakatu dute. Horren barruan, adibidez, bihar VI. Urrezko Aizkorako kanporaketa eta pilota partiduak izango dira.

Goizean hasiko dira Arbel Eguneko ekitaldiak. 11:30ean trikitilariak kalejira egingo dute, giroa berotzen hasteko; gero, 12:00etan meza santua entzungo dute eta 12:30ean urteko kontu batzarra egingo dute Aramaioko Baserritar Elkarteak bazkideek.

Goiza borobiltzeko, 14:30ean bazkaria egingo dute eskolako jangelan. Aurreko urteetan, 70-80 bat lagun elkartu izan dira bazkarian.

AIZKOLARIAK

Arratsaldean, 17:15ean segituko du jaiak. VI. Urrezko Aizkora txapelketarako puntuagarria den kanporaketa jokatuiko dute kiroldegian. J.J.Barberenaren eta (Lekunberri) Iñaki Azurmendiren (Arriaran) arteko buruz burukoa izango da. Hamarna enbor moztuko dituzte. Bi enbor 45 hazbetekoak; lau 54 hazbetekoak eta beste lau 60 hazbetekoak. 19:00etan, txarangak kalejira egingo du.

PILOTA PARTIDUAK

Eta, gauean, eskuz binakako pilota partidua ikusteko aukera izango da, 22:00etan, kiroldegian. Badiola III.ak eta Gabarri II.ak osatutako bikoteak Legorburuk eta Errandonea I.ak osatutako bikotearen kontra jokatuiko du.

Haien aurretik, Aramaioko pilota eskolako gazteek erakustaldia egingo dute.

Paleta Txapelketako finala domekan jokatuiko dute

UBANE MADERA

Makina bat lanen ondoren, etzi, domeka, jokatuiko dute aurtengo Paleta Txapelketako finala. Garaitak eta Floresek Pérez eta Urria izango dituzte aurrez aurre. Haren ostean, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatuiko dute, eta gero, sari-banaketa izango da.

Domekan, 09:00etan jokatuiko dute Garaitak eta Floresek Pérezen eta Urraren aurkako partidua, finala. Haren ostean, 10:30ak inguruan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua jokatuiko dute. Kasu honetan, Arriolabengoak eta Azurmendik Barandiaran I.aren eta Oiangurenen kontra jokatuiko dute. Eta gero, 12:00ak aldera sari-banaketa egingo dute.

ARETO FUTBOLA

Bestalde, areto futbolari dagokionez, orotariko emaitzak izan ziren joan den asteburuan. Kadete mailako mutilek 13-2 galdu zuten Olabideren kontra; neskek 3-1 irabazi zuten Ekialderen kontra eta gazte mailako mutilek 2-0 irabazi zuten Urgatziren kontra. Oraingo asteburuan, kadete mailako mutilek ez dute partidurik izango, aurkariak ezin dutelako jokatu. Neskei dagokionez, berriz, bukatu dute Liga Txapelketa (azken aurreko postuan geratu dira) eta orain, Kopa Txapelketari ekingo diote. Aurreneko partidua Jesus Obregonen kontra dute, bihar, 10:00etan Gasteizko Hegoalde kiroldegian. Eta, gazte mailako taldeak Aurrea taldea izango du aurrez aurre, 10:00etan, Aramaion.

ZINEMA

Willow filma emango dute.

JOSE MARI AZKARRAGA MOZO
"Lurgorri"

Bere bizitza eta idazlanak

Josemari Velez de Mendizabal



'Lurgorri' herritarren gogoan

Gaur, barikua, 19:00etan hasiko dira Jose Mari Azkarraga Lurgorri-ren omenezko ekitaldiak. Besteak beste, bere loba Josemari Velez de Mendizabalek hitzaldia emango du gaur, eta bihar, haren gaineko liburu bat aurkeztuko du, 11:00ak aldera kultur etxean. Horrez gainera, 12:00etan Lurgorri izena emango diote herriko pasealeku bati, eta gero erakusketa zabalduko dute.

LABUR

Euskal Herriko musika, domekan, Anboto tabernan

Musikari aski ezagunek bisitatuko dute oraingo asteburuan Aramaio. Bat, bi, hiru taldea sortu dute musikari horiek eta Euskal Herriko kantu zaharrrak berreskuratzen ibili dira, gero jendaurrean jotzeko.

Honako hauek dira taldeko kideak: Josu Zabala, soina jotzen (Hertzainak eta 7 Eskale taldeetako musikari ohia); Bingen Mendizabal, bibolina jotzen (soinu bandak konposatzen ditu); Alex Ruiz de Azua, alboka jotzen (Trikitixa Kontrairo taldeko kide ohia) eta Iñigo Larragoiti, saze instrumentu arabiarrak jotzen (7 Eskale eta Potato taldeetako kide ohia). 19:00etan da kontzertua, pertsona nagusi zein gazteak joan ahal izateko.

AGINTALDIARI BEGIRATUA

INAKI NAFARRATE/ARAMAIOKO ALKATEA

“Egindako gauzak ahalik eta hobeto egiten ahalegindu gara”

UBANE MADERA

Bi legegintzaldiren ostean, Iñaki Nafarratek Aramaioko alkatetza utzi egingo du. Batzar Orokorretarako aurkeztuko da, *Tierras Esparsas* koadrilarako zerrendaburu moduan. Baina, joan aurretik, legegintzaldiaren balorazioa egin digu.

Gogoz iritsi zara legegintzaldiaren amaierara?

Gogotsu. Baina, esan beharra dago Udalean, azkeneko urtean, nahikoa arazo izan dugula: zinegotzi batek baja hartu zuen eta beste bati bihotzekoak eman zion. Idazkaria joan egin zitzaigun; berria etorri da, eta denbora behar du hemengo lanak ikasteko. Kontu-hartzaileak amatasun-baja hartu du, uste baino bederatziz hilabete lehenago... Normalean baino gauza gehiagori heldu behar izan diogu, eta horrelakoetan gertatzen denez, askotan ezin izan dugu guttia egin. Baina, bestela bai, gogotsu eta indartsu iritsi naiz.


Oso legegintzaldi bete ia izan duzue, gauza mordoia egin dira; egin ezazu balorazio bat...

Batez ere, gure apustua izan da auzo guztietara gutxieneko zerbitzuak eramatea: ura, saneamendua, gasa eta zuntz optikorako azpiegiturak. Gehienetara iritsi gara, eta oso garrantzitsua da.

Bestalde, kultura arloa dezentte indartu dugu. Kulturarako aurrekontua dezentte igo dugu; kultur etxea ere hortxe dago. Euskarari dagokionez, azkeneko legegintzaldietan hiru liburu atera ditugu, eta bestelako ekintza garrantzitsuak ere egin ditugu. Nire ustez, euskararekin lotutako helburuak ez dira epe motzerakoak, epe ertainerakoak, baizik. Izan ere, Aramaion, euskaraz ikasi ez duen belaunaldi bat dago, eta irakurtzea...kostatu egiten zaigu.

Horrez gain, mendi arloan aurrerapen garrantzitsuak egin ditugu; izan ere, Vital Kutxarekin batera baso batzuk erdibana bota eta gero, berriro ere landatu egin ditugu, baina, oraingoan udalaren jabetzarako; horrek 30-35 urte barru fruituak emango ditu. Gainera, azken urteotan mendiak ondo zainduta egon dira, izan ere, mendi sailean egon diren zinegotzi biek lan bikaina egin dute.

Ongizate arloan, berriz, alde batetik, kultur etxe berrian erretiratuendako lekua egokitu dugu. Oso gustura daude. Bestalde, arlo berean, ongizateko asistentziaren aldetik, orduak bikoiztu baino gehiago egin ditugu. Eta, bukatzeko, Aita Menniko eguneko zentrorra egunero joateko aukera eman dugu. 1998-99 inguruan antolatu genuen zerbitzu hori. Zailtasunak dituzten pertsonen hara joateko aukera dute, eta hori oso garrant-



“Gure apustua izan da auzo guztietara gutxieneko zerbitzuak eramatea”

tzitsua da.

Azken urteok erakutsi dute gero eta jende gehiago datorrela hona bizitzera. Etorkizunari aurre egiteko gertu zaudete?

Uste dugu, gaur egun, Aramaion kalitate maila erdi-altuarekin bizi daitekeela. Badakigu Aramaio ez dituela hirietan dau den zerbitzuak; baina, adibidez, Arrasatek eskaintzen dituen zerbitzu gehienak badaude Aramaion. Are gehiago, auzoetan, akaso, zerbitzu gehiago eta hobeak izango dira.

Bestalde, ikusten gabiltza inguruko herrietatik gero eta jende gehiago etortzen dabilela. Gure erronka da berri horiek Aramaion geratzen joatea; euren bizimodua (lagunak...) Aramaion egitea.

Horrez gain, Aramaion etxebizitza dezentte eraiki da, eta urte pare baten edo hiru bat urtean Aramaion 50 etxebizitzatik gora egingo dugu.

Batasunaren legez kanporatzea dela-eta, zer diozu?

“Erabaki gehienak aho batez hartzen ditugu; herriaren aldeko lana egiten dugulako”

Politikaren arlotik udalean arazo gutxi izaten dira; guk hartzen ditugun erabaki gehienak aho batez hartzen ditugu; izan ere, hemen herriaren aldeko lana egiten dugu. Politika gaiak lantzen ditugunean (mozioak...) beti sortzen dira iskanbilak, azkenean bakoitzak bere jarrera politikoa duelako. Eta hori izaten da apur bat penagarria. Baina, zoritxarrez halaxe da. Bestalde, Batasuna legez kanporatzea herriari hitza kentzea da. Aramaion botoa Batasunari emateko aukera duenari aukera hori kentzen diote. Gu beti egon gara horren kontra. Baina, batzuetan zalantza daukat akaso pertsona batzuk hori topatzen ibili diren.

Damutzen zara zerbaitekin?

Seguru nago egin diren gauzak hobeto egin daitezkeela, baina, garbi daukatena da egindako gauzak ahalik eta hobeto egiten ahalegindu garela. Alde horretatik, nik, behintzat, kontzientzia garbi eta trankil daukat. Hori baino gehiago ezin daiteke eskaini.

Beste udal taldearen iritzia

AMAIA ASPE/SOZIALISTA ABERTZALEAK

“Udalean herritar guztiek hitza izatea nahiko nuke”

Nahiz eta aurrera egiteko atzera bi pauso eman behar izan, uste dut bide zuzenean goazela.

Lizarra Garazi bertan behe-geratu zenetik, Euskal Herrian eta Aramaioko Udalean ere lan egiteko baldintza demokratikoak gutxitzen joan dira. Horrek zaildu egin du lana.

PNVrekin negoziatu ondoren gogoz hartu nituen kargua eta ardurak. Euskara eta Hezkuntza batzordeburu izanik eskertu egin gura nuke bai batzordekideek eta, batez ere, herriko taldeek emandako laguntza. Euskara batzordeak egindako lanarekin eta euskara elkarteak egindakoarekin, elkarlanean, orain dela lau urte programan ipinitako helburuak betetzeko gai izan gara, baita ipini ez genituenak bideratzeko ere.

Hainbat izan dira Euskara batzordetik abian ipini ditugunak: euskara gaietarako langilea kontratatu, euskara elkar-atea sortu, mapa toponimikoa egin, Aramaio euskara batu eta argitaratu, udaleku irekiak antolatu, euskara ikastaroak antolatu eta ordaindu, bertso eskola indartu, UEMArekiko partaidetza sendotu, kirol proiektua, eskola garraiorako dirulaguntzak eman, arau subsidiarioak euskaratu, izateko bikoteen errolda, presoen senideendako dirulaguntzak, Udalbiltza...

Hala ere oraindik badago



“Egindakoa herriarendako egin dugu, etxez etxe, kalean nahiz auzoetan”

zeregina. Egindakoa herriarendako egin dugu, etxez etxe, kalean nahiz auzoetan.

Gauzak antolatzerakoan herri osoa hartu dugu kontuan, horren adibide udalekuak, garraioa ipini dugu auzoetakoek ere parte hartzeko.

Aurrerantzean, aurkezteko aukera izan eta Udalean herritar guztiek hitza izatea nahiko nuke, eta hori horrela izateko lanean jarraitzeko asmoa daukagu.

Egoera gordina da une honetan, baina, horrelakoek balio izaten dute batzeko, indartzeko eta aurrera egiteko.

ANALISIA

Aldaketen garaia

Lau urte bete-beteak izan dituzte Aramaion. Aldaketa eta lan ugariarekin. Eta, etorkizuna ere berdintsu datorrela dirudi.

Hasteko, udaletxean zinegotzi eta langile aldaketak izan dituzte, eta horren eragina, jakina, igarri da zelanbait. Herrian ere aldaketa handiak izan dira. Ibarran, kultur etxea da nabarmendu beharrekoa. Askoren ustez, Aramaio moduko herriarendako luxua da horrelako zerbitzu edukitzea. Auzoetan azpiegiturak sartu dituzte, aurrerapauso garrantzitsua. Garraioa hobetu dute eta euskarari bultzada eman diote. Eta, oro har, herria aurrera doa, batez ere, geroago eta kanpotar gehiago datorrelako. Baina, hori ere, ondo bideratzen jakin beharra dago, eta hor izango dute etorkizuneko erronketako bat. Baina, badirudi politikagintzan egongo direla zailtasun handienak. Legegintzaldian igarri da hori. Herrigintzan egiteko arazorik ez dute alderdi politikoei, beti ere, gai politikoei lantzen ez badira. Eta, zenbaitzuk hor sumatzen dute gabeziarik handiena. Batez ere, orain, Batasunaren legez kanporatzearekin. /TXIRRITOLA

ERRETRATUZAHARRA

Erraldoiak
ekarri
zituztenekoa

Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa 1985ean sortu zen. Hain justu ere, urte hartan bertan ekarri zituzten Iruñetik Oinaztarren eta Ganboatarren arteko borroketan ibili ziren lau pertsonaia irudikatzen dituzten erraldoiak. Gure berriemaileek kontatu digutenez, eurek ere (konpartsakoe) orduantxe ikusi zituzten aurreneko aldiz. Maizta-ekainean ekarri zituzten Arrasatera. Eta, ekarri eta berehala, muntatu, jantzi eta haiekin dantzan egiten ikasten hasi ziren. Gero, urte bereko San Juan jaietan estreinatu zituzten erraldoiak. Eta, horrez gainera, ez zuten bestelako arazorik izan. Erraldoiekin dantzan ibili zirenek ondo asko egin zuten, bazirudien erraldoiak neurrira eginda zituztela. Eta ez da batere gauza erraza izan behar; izan ere, erraldoi bakoitzak 55-65 kilo pisatzen du. Enkarguz egin zituzten Nafarroan.

Argazkia kiroldegian dago aterata, lehengo pilotalekuan (gaur egun saskibaloiko kantxa dagoen lekuan).



Honako hauek agertzen dira goiko argazkian, ezkerretik hasita, goiko ilaran: Iñigo Txintxurreta, Iñaki Arana, Iñaki Unamuno, Gomix, Enrike Dolara, Jon Ezpeleta, Imanol Ibarra, ezezaguna, Jon Iñaki Isazelaia, Juantxo, Jose Ramon Pérez, Blas Subiza (Txantreakoa), Txantreako

beste lagun bat, eta azkena Andoni Zabaleta da.

Beheko ilaran honako hauek agertzen dira, ezkerretik hasita: Mikel Salaberri, Aitor Abarrategi, Juan Luis Uribarren, Andoni Loiti, Gotzon Arregi, Manu Piedehierro eta Asier Agirrebengoa.

Goian, berriz, erraldoien lepoei helduta agertzen direnak Txantreatik etorritako beste bi lagun dira.

Argazkia eta informazioa: Erraldoi eta kilikien konpartsa
Urtea: 1985

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garibairen
etxeko
margoa

Ez da lehenengo aldia Esteban de Garibai jaio zeneko etxea argitaratzen dugula, baina inoiz ez dugu etxe horren hain irudi zaharrik argitaratu. Esteban de Garibairen etxea *Revista Internacional de Estudios Vascos* liburuan aurkitu dugu, baina margo hori *La Ilustración Española y Americana* argitalpenak argitaratu zuen lehenengoz, 1827an.



≈ 1827

Joseph N. Niepceek asmatu zuen argazkilaritza, 1822an. Ez dakigu 1827an Arrasaten argazki makinari egongo ote zen.



2003

Garai baten Esteban de Garibairen etxebizitza Telefonica enpresak erabili zuen; liburutegia ere izan zen, eta gaur egun Gazte Bulegoa da.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

1
APIRILAREN

EUSKAL HERRIAK

ZURE SINADURA BEHAR DU!

ETIK *aurrera*



GIPUZKOAKO UDAL IDAZKARITZA GUZTIETAN eta NOTARITZETAN

ZATOZ SINATZERA!

BERGARA. DEBA-UROLAKO BARRUTIA

Roberto Rafael Oliver Puertolas (Notaritza)

Ibargarai 20 • BERGARA

Orduategia: 10:00-13:00 eta 16:00-17:30

943 76 10 73

SINADUREN BILKETARI BURUZKO ARGIPENETARAKO GUNEAK
948 21 36 01  www.aubilgunea.org

DIRU LAGUNTZA
BANCO DE VASCONIA 0095 4638 17 0600206470

FAXISMOARI ESAN OZENKI

50.000 BAIETZ!

Corsa **Edition** berria
Ekipamendu eta aurrezki eksklusiboak



Apirilean, Corsa deskontuarekin

Gehienez

2.400€



Opel EDITION gamak oso ekipamendu eksklusiboa eta 2.400€ eurorainoko deskontua eskaintzen dizkizu Agila, Corsa, Astra eta Zafira autoetan.

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Sustapen hau baliozkoa da Penintsulan eta Balear Uharteetan, stock-ean dauden autoentzako, apirilaren 30era arte. Deskontua, Corsa Diesel gamak kalkulatua.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es